




Guda Dantzak *Labarraren ertzean* diskoa plazaratu du; oraingoan «gehiago arriskatu» dutela diote. ▶15



Kalezulo hutsarazte-arriskuan dagoela ohartarazi du EGAK. Epaia zain egon barik, mobilizatza deitu dute. ▶5

hiruka

Uribe Kostako astekaria



49. zenbakia

2016ko
otsailaren 18tik
otsailaren 24ra arte

«Ikusleak hunkitzen saiatzen gara beti»

Natalia Monge Gomez algortarra da Organik dantza- eta antzerki-konpainiaren zuzendaria; *Irrintzi* lanaren aretoko bertsioa estreinatu berri dute. ▶16-17



SAKONEAN PLENTZIA

Urak aztertuz

EAEko ur-masen egoera ekologikoa aztertu du URAK egindako ikerketa batek. Lanak ondorioztatutakoaren arabera, Butroe ibaiko urek ez dute «egoera ona» delakoa lortzen. ▶22-23



KULTURA LEIOA

Maratila, Kultur Leioan

Otsailaren 25etik 28ra, euskal sorkuntzari begirako zikloaren bosgarren ekitaldia antolatu du Artedrama plataformak.

Kultur Leioagaz elkarlanean, euskarazko sei ikuskizuneko kultur eskaintza prest dauka Artedramak. Antzerki, film eszeniko, musika, literatura eta dantza alorreko sorkuntza-lanak aukeratu dituzte aurtengo egitaraua osatzeko. ▶14

ALBUMA HAINBAT HERRI

Aratusteak iruditan

▶09-10



Zurumurruren kontrako urteroko formakuntza-saioetan izena emateko epea zabaldu du Getxoko Udalak. ▶4

Leioa Berpizturen bidez, hutsik dauden lonjak atundu eta merkaturatu gura dituzte Udalak eta Behargintzak. ▶6

Umeentzako lau jolasleku hobetzeko eta modernizatzeko lanak bideratu ditu egunotan Berangoko Udalak. ▶8

Euskaldun baten hizkuntz bidaia liburuaz jardungo du Karmelo Ayestak, barikuan, Sopolako kultur etxean. ▶13

Kiskalitako Fadurako erretegiagaz zer egiteko zain daude elkarteak

Joan den egunean, udalerriko 30 bat elkarte Udaleko ordezkariakaz batu ziren azpiegituragaz zer egin adosteko. Bitartean, kanpoko aterpea erabili ahalko dute.



Otsailaren 2an kiskali zen Fadurako erretegia.

Bapiruke ekimenaren Aste Santuko kolonietan izena emateko epea zabalik

Algortako Fadura kiroldegia-
ren alboko garagardotegiak
su hartu zuen, hilaren 2an.
Udal arduradunek orduan
azaldu zuten, garrek kalte material
larriak eragin zituzten eraikinaren ba-
rruan, baita egurrezko egituren ere. Ez-
behar horren ondorioz, galduta ikusi
zuten Getxoko elkarteek euren ospaki-
zunak zein hitzorduek egiteko erabil-
tzen zuten eta Getxo Kirolak erakun-
deak kudeatzen zuen eraikina. Hala
ere, egoera horri buelta eman guran,
iragan egunean, hilak 10, Getxo Kiro-
lak-eko eta Udaleko ordezkariak udale-
rriko ia 30 erakundetako kideakaz batu
ziren Faduran. Ana Masa Getxo Errug-
bi taldeko prentsa-arduradunak iraga-
rri duenez, «badirudi garagardotegia
konpontzeko edo berritzeko lanak hasi
direla, ahalik eta lehen erabili ahal iza-
teko». Halaber, lanok egiten diren bi-
tartean, udalerriko elkarteek kanpoko
aterpea erabili ahal izango dutela azal-
du du Masak.

Sutea gertatu eta gutxira ezbehar
horren arrazoiak zeintzuk izan ziren
argitzeko ikerketa abiatu zuten, orain-
dino zabalik dagoena. ◀

Urtero legez, Getxoko Bizarra Le-
poan Euskaldunon Elkarteak 5
eta 12 urte bitarteko neska-mutilen-
tzako Udaberriko kolonia irekiak an-
tolatuko ditu martxorako, Bapiruke
egitasmoaren barruan. Algortako Za-
bala eta Itzurbaltzetako Romo esko-
lan izango dira ekintzak; martxoaren
21etik apirilaren 1era arte. Elkarte-
ko bazkideek otsailaren 22an edo 23an
egin beharko dute izen-ematea; gai-
nerakoek otsailaren 24an eta 25ean
egin ahalko dute. Horretarako, Algor-
tako Martikoena kaleko 16. zenbakian
dagoen eraikinera hurbildu beharko
dute batzuek zein besteek. Ordute-
gia 10:00etatik 13:00etara da, hilaren
25ean izan ezik, arrastiz izango baita:
16:30etik 18:30era. Bazkideek 35 euro
ordaindu beharko dituzte; bazkide ez
direnek, oster, 55 euro, eta gutxiene-
ko errenta aurkeztu dutenek 10 euro.

Bestalde, begirale eta zuzendarien
lan-poltsa berritu gura dutela iragarri
dute Bapirukeko arduradunek. Horre-
tarako, izena eman daiteke dabordu-
ko (azpian agertzen direnen bidez). ◀

harremanetarako: bizarralepoan.eus
info@bizarralepoan.org / 944 910 387

Bertoko zuhaitzak landatuko dituzte Azkorriin, zapatuan

Urteroko ohiturari jarraituz, Tosu
Betirako! taldeko lagunek bertoko
zuhaitzak landatuko dituzte Azkorri in-
guruan. Horretarako, hilaren 20an ipi-
ni dute hitzordua, goizeko 10:00etan
Bidezabaleko metro-geltokian; ostean,
10:30ean, Azkorriko aparkalekuan ba-
tuko dira. Landaketan parte hartu gura
dutenek izena eman dezakete. ◀

info+: tosubetirako@gmail.com



Egunotan txotxongiloak, berbaldia eta eski-ikastaroak

Udalerriko familien artean euska-
ra sustatzeko Sendi egitasmoak
prest dauzka hurrengo ekintzak. Hila-
ren 21ean, domeka, *Amonaren sutondo-
ko ipuinak* txotxongilo-saioa eskainiko
dute Behinola konpainiako lagunek;
18:30ean, Algortako Villamonte kul-
tur etxean. Otsailaren 23an, eguaztena,
Amelia Barquin Lopez filologoak gene-
roaren eta hizkuntzaren arteko loturaz
egingo du berba, Zabala ikastetxeko

liburutegian, 17:30etik 19:30era. Azke-
nik, martxoaren 4tik 6rako aste-aka-
buan gurasoek eta umeek iraupen-es-
kia egiten ikasteko aukera izango dute,
egunero 2 ordu, Somporteko eski-esta-
zioan. Horretan parte hartu gura dute-
nek 140 euro ordaindu beharko dituzte
(110 euro gurasolagun, Olgetan euska-
razko kide eta Bizarra Lepoaneko ki-
deentzat). Gainerako jarduera guztiak
doakoak izango dira. ◀

Bapiruke

Udaberriko koloniak

Martxoaren 21etik apirilaren 1era

Norentzat: 5-12 urte bitarteko umeentzat | niños/as de entre 5 y 12 años.
Non: I.B. Zabala (Algorta) eta Romo eskolatan | en las escuelas I.B. Zabala y Romo

Prezioa: bazkideek 35 euro; bazkide ez direnek 55 euro; gutxieneko errenta
Getxon *10 euro | socios/os 35 euros; no socios/os 55 euros; renta básica en Getxo *10 euros.
Izena emateko: Bankuko abonarearekin eta Osakidetzako txartelaren
fotokopiarekin bulegora etorri eta bertan izen emate orria bete eta sinatu behar
da (Euskadiko Kutxa: 3035 0108 06 1081032766) | con el abonaré del banco y la
fotocopia de la tarjeta de Osakidetza hay que venir a la oficina y rellenar y firmar la hoja de inscripción.

Izen emate epea: bazkideek otsailaren 22an eta 23an; eta bazkide ez
direnek otsailaren 24an eta 25ean | socios/os el 22 y el 23 de febrero; no socios/os el 24 y 25.
Izena emateko ordutegia: Egunero 10:00 - 13:00; 23an eta 25ean arratsaldez
ere 16:30 - 18:30 | todos los días de 10:00 a 13:00; el 23 y 25 también de 16:30 a 18:30

BIZARRA LEPOAN EUSKARA ELKARTEA
Martikoena kalea 16, 2.solairua - 4.bulegoa:
48992 Algorta (Getxo)
94 491 03 87 | info@bizarralepoan.org
www.bizarralepoan.eus

amarkoakizko izenak

*Lanbidearen zuzenbidea • Nafarroa Fotokopia • *Zertifikatu de Lanbide • Fotocopia del DNI



BIZARRA LEPOAN:
GETXOKO EUSKARA ELKARTEA, GARA ETX. 11
URTE DIBERTASUN, ZINGARRIEN, ERASOZA
SUSTATZEN. BAPIRUK, GENTU KIRILA ETA
GENTU KULTURA ONA GURE EUSTORIO
*ANALISI, HEZKUN, DOKUMENTAZIO, BAZKIDIA
ERAKUTZEN DUE PRATE. MARTXON 2020
SINATU PROPOSAMEN EUSKARA GURE EUSTORIO
ETXAN DIBERTASUN, ZINGARRIEN, ERASOZA
SUSTATZEN. BAPIRUK, GENTU KIRILA ETA
GENTU KULTURA ONA GURE EUSTORIO
*ANALISI, HEZKUN, DOKUMENTAZIO, BAZKIDIA
ERAKUTZEN DUE PRATE. MARTXON 2020

Getxo

Garrobiren Garranblada

Udalerriko artistak batu eta euren egitasmoak aurkezteko bilera egingo dute bariku honetan.

Garrobi arte-kultur elkarteak bere lehenengo «Garranblada» egingo du hilaren 19an, barikuan. Elkarteak berak antolatzen dituen asanbladak izango dira «Garranbladak». Festa-giroan, euren kideen proiektu artistikoak aurkezteko dituzte modu horretan. Izan ere, antolatzaileek jakinarazi dutenez, egitasmo artistiko batzuek laguntzaileak behar dituzte aurrera eroan ahal izateko. Proiektuen inguruan berba egiteaz gainera, dantza egiteko, jateko, edateko eta antzerkiaz gozatzeko hitzordua ere izango dela iragarri dute. «Ondo pasatu nahi dugu, elkar hobeto ezagutu, eta inguruko artistek ere euren



Hilaren 19an jarri dute hitzordua, 19:00etan, Algortako Telletxe plazan.

artean elkar ezagutu dezaten», azaldu dute antolatzaileek. Hala, 19:00etan ipini dute lehenengo hitzordua, Algortako Telletxe plazan. Bertatik ibilbide bat abiatuko dute, Maite Mentxaka artistak gidatuta, lokal baten behararren inguruan eztabaidatzeko. Ostean,

20:00etan Getxo tabernara joango dira, eta bertan Laurita Siles, Rafa Anduiza, Ainhoa Ortells eta Jose Fernandez artistek euren proiektuak aurkeztuko dizkiete bertaratuko diren guztiei. Ondoren, bideo-proiektzioak eta kontzertua egongo dira, besteak beste. ◀

Kultur elkarteek diru-laguntzak eska ditzakete daborduko

Datorren martxoaren 12ra arte egongo da zabalik udalerriko kultur elkarteentzat Udalak urtero ematen dituen diru-laguntzak eskatzeko epea. Aurten, Udalak 104.000 euro bideratuko ditu laguntza horietara; udalerriko kultur elkarten ohiko gastuei aurre egiten lagundu gura die horregaz. Irabazi asmo bako kultur elkarteek eskatu ahal izango dute laguntza, honako baldintza hauek betetzen badituzte: nortasun juridikoa eta egoitza soziala Getxon izatea; kultura-jardueraren bat eginez gero, Getxorentzat interesgarri izatea, Udalak edo bere talde autonomoek antolatzen dituzten kultur jarduerak areagotu, hornitu edo ordezkatzuz. Eskabide-orriak Villamonte kultur etxean edo Herriarren Arretarako Bulegoetan eskura daitezke. Deialdiaren oinarriak udal webgunean daude eskuragarri. ◀

info +: getxo.eus

Expo baby & Kids

2016ko Otsailaren 19, 20 eta 21
Ostirala: 16:00etatik 20:00etara | Larunbata: eta Igandea: 10:00etatik 20:00etara

Sarrera 5€

deskontu bonuarekin
Ohiko prezioa 7€
Deskarga ezazu zure deskontu bonua www.expobaby.com

DOAKO ZERBITZUAK BISITARIENTZAT

- Haur-masaje tailer gela
- Haur-ohial aldaketa gela
- Edoskitze gela
- Haur jatetxe gela
- Konferentzia eta hitzaldi gela
- Eskulanen gela
- Haur-kotxeentzako parkinga
- Txiki Park

Zure sarrerarekin OPARIA MOMENTUAN*
* Izakinak bukatu arte
** Azken orduko aldatetak izan ditzake

Erosi zure sarrera on line

ETOR ZAITEZ ETA GOZATU UMEENTZAKO PRODUKTU ETA ZERBITZUEN BERRI ETA DESKONTU ZORAGARRIEKIN!
ZURE SARRERAREKIN UMEENTZAKO PRODUKTUEN ZOZKETETAN PARTE HARTUKO DUZU

www.expobaby.com ✉ expobaby@ffglobalevents.com ☎ 94 445 82 22 📞 688 686 846

Getxo

Atzeritarren Legearen inguruko saioak, Algortan

Datorren otsailaren 24an, eguaz-
tenean, hasiko dira berriro Atze-
rritarren Legeari buruzko informa-
zio-saioak Getxon. Udalak antolatuta,
Biltzen Eusko Jaurlaritzako Gizartera-
tzea eta Kulturarteko Bizikidetzaren
Euskal Zerbitzuak emango ditu ber-
baldiak, doan. Interesa duten herri-
tar danei bideratuta daude saioak, eta
oso interesgarriak izaten dira herri-
rrak erregularizatzeko izapideak hasi
behar dituzten enpresa edo pertsona
enplegu-emaileentzat.

Aurten saioak bi hilabete behin
izango dira, eta interesa dutenek al-
dez aurretik izena eman beharko
dute. Saioak otsailaren 24an, apirila-
ren 27an, ekainaren 29an, irailaren
28an, eta azaroaren 30ean izango dira,
19:00etatik aurrera, Algortako Villa-
monte kaleko kultur etxean. ◀

info +: 944 660 151
inmigracion@getxo.eus

Zurrumurrurik ez!

Martxoan izango da
Zurrumurruen kontrako
formakuntza-eskaintza;
zabalik dago izen-ematea.

Zurrumurruen kontrako urtero-
ko heziketan parte hartu ahal
izateko izena emateko epea
zabaldur du Udalak. Tailerrak
Areetako Getxo Elkartegian izango
dira, martxoaren 2, 7, 9, 14, 16, 21 eta
23an, 19:00etatik 21:00etara; lehenen-
go saioa izan ezik, 18:00etatik 21:00eta-
ra izango baita. Kultura, nortasun eta
dibertsitatearen inguruko gogoeta egi-
tea; estereotipoak eta zurrumurrak
zelan sortzen diren aztertzea; lantze-
ko eta kudeatzeko tresnak eskaintzea;
eta elkarrizketarako eta komunikatze-
ko trebezia praktikoak ikastea izango
dira saioetako helburuak. Era berean,
aurten, hainbat mintegi tematiko osa-



Saioak Areetako Getxo Elkartegian izango dira. © GETXOKO UDALA

garri egingo dituzte, sakondu beharra
duten gaien gainekoak.

2013an martxan ipinitako Zurrumu-
rruen kontrako Estrategia EAEko, es-
painiar Estatuko eta Europako beste
udalerrri batzuetan egiten dabilzan an-
tzeko estrategiei lotuta dago, eta bere

oinarriak dira kultura-artekotasuna
eta bazterketaren aurka borrokatzea,
immigrazioari eta kultura-aniztasuna-
ri buruz dauden zurrumurrak, aurrei-
ritziak eta estereotipo negatiboek sor-
tzen dituzten ondorioei aurre egiteko. ◀

info+: getxo.eus/antirumores



Bihotz Handi Getxoko odol-emaileen elkarteak gorazarre egin zien
odola 20 aldiz baino gehiago eman duten gizon-emakumeei. Hilaren 12an,
barikuan, egin zuten ekitaldia Algortako Villamonte kultur etxean. Denera,
51 pertsona omendu zituzten: 16 emakume eta 35 gizon.

Maskotak Zubian «seguru» joateko, sinadura-batzea

Gaur egun, Bizkaiko Zubian Ibai-
zabal etxe-animaliakaz gurutzatu
gura dutenek kotxeen artean egin
behar dute. Egoera horrek ezinegon
sortu du hainbat erabiltzaileen artean,
autoen artean egon beharrak «estresa»
eragiten dielako animaliei, «arrisku-
tsua» izateagaz batera. Hala, maskota-
kaz estalpeko transbordadorean joan
ahal izateko, sinadurak batzen hasi da
animalien aldeko Bizkaiko Podemos-
eko zirkulua, change.org plataformaren
bitartez. Lortutako atxikipen guztiak
Bizkaiko Foru Aldundiaren Turismo
Sailean aurkeztu gura dituzte, anima-
lien eta euren ugazaben alde joka de-
zan. Zubia kudeatzen duen enpresak,



Auto artean gurutzatzen dute gaur egun.

ostera, gogoratu du txakurrek eta ka-
tuek, jabeakaz batera, ontzitzoaren er-
dialdean, autoakaz batera, joan behar
dutela, «gainerako erabiltzaileen se-
gurtasunerako». ◀

GetxoGas

GetxoGason
Euskararekin
bat!!

Getxo eta Berango artean
94 430 15 00

prentsa · aldizkariak

ITXASGANE
Getxoko kirol portua · 94 491 53 21

KONTXI
ZUZUBISKAR

URDAITEGIXA

Kalitatezko elikagaiak zure mahaiari
Alangobarri 10, ALGORTA. Tf: 94 491 02 93

**GURE
ETXEA**
taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

GOIZEAN

«Gozoki eta prentsa,
gutxi denik ez prentsa»

Prentsa · Fruitu lehorrak
Aldizkariak · Litxarriak

Orduña mendatea, 1. GETXO · 94 430 22 13

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behea eskuina. ALGORTA - 94 430 76 96

EKIN

Jatetxea

Bolue 4, Algorta - 94.608.04.62

Erandio

Kalezulok epaiari aurrea hartu gura dio

Gaztetxea hutsarazteko arriskuan dagoela dio Erandioko Gazte Asanbladak. Pasa den astelehenean, gazte bi epaitu zituzten; epaia laster kaleratuko dute.



Pasa den zapatuan 170 bat lagun atera ziren kalera, gaztetxearen eta auziperatuen alde.

Erandioko Gazte Asanbladak (EGA) ez du konfiantzarik pasa den astelehenean Bilbon egin zen Erandioko gazte biren aurkako epaiketaren emaitzan. Beraz, «epaiaren zain beso gurutzaturik geratuko ez» direlako, bilera «masiboa» deitu zuten eguaztenean, «borroka jarraitzeko», eta 2011n jaiotako gaztetxeari «etorkizun bat eskaintzeko». Kolektibo horren ustez, balizko usurpazio-delitua ikertzen duen 3608/2015 auzian, «lotsagarri» jokatu zuen magistratuak, bista «hasi aurretik, epaileak erabakia hartuta zuela esan» zuelakoan daude. Epaiketan, lekuko bakkarrak leporatu zion auziperatu bakar bati arduraren bat izatea: kontzertu bat antolatu izana. Gainera, 3. zenbakiko udaltzainak beragaz zihoan beste polizia bategaz kontraesanean geratu zen. Lekukoak entzunda, defentsak absoluzioa eskatu zuen, auziperatuen aurkako frogarik ez zegoelakoan. Fisikaltzak eta akusazio partikularrak, ordea, eraikina utzaraztea eta isun bana eskatu zuten. Ereaga Gestion SLk eraikina saldu gura du, zorrak kitatzeko. ◀

Loiuko aireportuaren ordutegia ez du zabalduko AENak

Loiuko aireportua kudeatzen duen Estatuko enpresak, AENak, bari-kuan jakinarazi zuen ez duela «oraingoz» azpiegituraren ordutegia zabalduko, arrazoi teknikoengatik. Vueling hegazkin-konpainiak iazko abuztuan eskatu zuen ordutegia luzatzea. Gaur egun, hegaldiak goizeko 06:45ean hasten dira, eta 23:00etan amaitu behar dute. Horregaz batera, atzeratutako abioiek luzapen-baimena dute, goizaldeko 01:00ak arte. Vueling konpainiak ordutegia 06:15etik 00:30era zabalduko eskatu zuen. Hala ere, Alex Cruz Vueling konpainiaren presidentek ez du ezkututzen bere asmoa dela Loiuko aireportua egun osoz zabalik egotea: «eguneko 24 orduz zabalduko izan behar du helburu». Erandio eta Txorierriko alkate denak eta hainbat udal zein Bizkaiko Batzar Nagusiak kontra agertu ziren, auzokideen atse-denaldiaz kezkatuta. ◀

Astrabuduan autoa non utzi jakin gura dute auzokideek

Pasa den otsailaren 10ean, dozenaka astrabuduar batu zen Josu Murueta kultur etxean, auzoan ibilgailuak uzteko dauden arazoak aztertu eta proposamenak egiteko. Deialdia Ganemos Erandio udal taldeak eta Erandioko Ahal Dugu alderdiak egin zuten; bileraren aurretik zein ostean, Udal Gobernuari gaiari heltzeko eskatu diote, baita Ezker Anitzak ere.

Udal Hirigintza Saileko arduradunek azaldu dutenez, pasa den irailean hasi ziren egoera aztertzen. Emandako datuen arabera, gaur egun 5.033 ibilgailu eta 10.497 pertsona daude errolatuta Astrabuduan. Autoetarako, legez 1.450 leku daude, «margotuta».

Hala ere, egunero 1.900 ibilgailu dauka aparkatuta kalean, legezko, behin-behineko zein arauz kanpoko aparkalekuetan. Udal Gobernuak jakinarazi du oraingoz erabakitzeke duen hainbat neurri aztertzen dabilela, tartean polemika handia eragin duen gaueko TAO zerbitzua ipintzea. Astrabuduko EAJk zehaztu duenez, TAO hori aplikatzekotan doakoa izango litzateke. Hirigintza Sailak aurreratutako balizko beste aukera batzuk lirateke metroko parkinga hobetzea, furgonetak eta kamioiak auzoko erdigunetik gaez ateraraztea, ikastetxeak gaez aparkaleku bihurtzea, eta auzotarren bigarren ibilgailuei tasaren bat ipintzea. ◀

Altzagako jubilatuek batzarra izango dute eguen honetan

Altzaga-Erandio jubilatuen elkar-teak batzar orokorra egingo du eguenean, hilak 18. Erretiratuak Altzagako Azoka Zaharrean batuko dira, 19:00etatik aurrera. Hitzordu horretan, aurreko batzarraren berri eman, diru-kontuen egoera azaldu, elkartearen gainera hainbat informazio zabaldu eta elkartearen ardurak egokituko dituzte. Hala, behin-behineko batzordea berretsi eta kargudun berriak hautatuko dituzte, horrela erabakiz gero. Amaitzeko, bazkide diren jubilatuen galderei eta eskariei erantzungo diete. Hurrengo hitzorduak ludikoagoak izango dira: elkarteak bisita bi antolatu ditu Bilboko Moyua plazako Txaba-

rri jauregira (Espainiako Gobernuaren Azpiordezaritzak erabiltzen du eraikina) eta Bilboko metrora. Jauregia otsailaren 27an eta martxoaren 12an ikusi ahal izango dute, 13:00etan, eta metroa, berriz, martxoaren 3an eta 7an. Izena martitzenetan eman daiteke postetxe zaharrean, 18:00etatik 20:00etara. ◀



Jasotako isuna errekurritu egingo du Cocina Central Goñik

Pasa den astean, Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA) zigorra ezarri zien zortzi catering-enpresari. Tartean, Cocina Central Goñi Erandioko sozietateari, 522.879,45 euroko isuna ipini zion. Agintaritzaren arabera, gutxienez hamar urtez prezioak adostu zituzten zigortutako enpresek, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko esleipenetatik diru gehiago lortzeko. Cocina Central Goñi eta auziko beste en-

presa biren jabe den Ausolanek ohar baten bitartez jakinarazi du inoiz ez duela egin lehiaren kontrakotzat jo daitekeen ekintzarik, 47 urtetik gora ibilaldian. Ausolanen ustez, egiaztatu gabeko informazioan oinarritutako ebazpena izan da LEA egindakoa; testuingurutik kanpo erabilitako hainbat datu oinarri hartuta. Horregatik, aipatutako isunak errekurritu egingo dituela iragarri du. ◀



Potxingoak kaleetan

ANA TERESA ESCUDERO BIZKARGUENAGA
Kazetaria

Ditxosozko eta zorioneko markesina

A dinka batzen dira, 11 zein 13koak, danak ditxosozko markesinak deituta. Busa joan-etorri eta bidaiaririk ez. Zer edukiko dau ditxosozko markesinak? Ez dabe beste ezer hoberik izango? Ezin dabe plazan olgatu? Bai, baina molestatzin dabe. Kirola? Egin daikie, baina astean zehar gelditu barik dagoz. Kiroldegira wifia xurgatzera? Hor ere molestatu! Erandioko umeek ez daukie nora joan, ezer berezi egin barik alkarregaz egoteko aukera izan beharko leukie, baina ez, Erandion ez dago ezer. Laster erreka-kotekara joateko plana egingo dabe, ez jaku gustatuko. Ordura arte zer eskaini jake? Bape, bueno bai, Zorioneko markesina! ◀

Leioa

Gaztelueta auzia beste epaile batek aztertu beharko du

Epaile berri batek zuzenduko du Getxoko Lehen Instantzia eta Ins-
trukzio 5. epaitegia; kontuak ho-
rrela, Leioako Gaztelueta ikastetxe-
ko ikasle bati ustez sexu-abusuak egin
zizkion irakaslea epaituko duten ala
ez erabaki beharko du epaile horrek.
Emilio Lamo de Espinosak, orain arte
Melillako epaile dekanoa izandakoak,
hartuko du kargu hori. Ohikoak ei dira
horrelako aldaketak arlo judizialean.
Ignacio de la Mata epaileak aztertu
zuen lehendabiziko biderrez Gaztelue-
tako ikasle ohiak ipinitako salaketa;
uda aldean, oster, Sara Montes ma-
gistratuak hartu zuen haren lekua. ◀

Kultur Leioako liburutegia zapaturo zabaltzen hasi dira

Otsailaren 6tik zapaturo zabaltzen
dabilta berriro Kultur Leioako
udal liburutegia. Astelehenetik bari-
kura, jaiegunetan izan ezik, orain ar-
teko ordutegiari (09:00etatik 20:00eta-
ra) eutsiko diote; zapatueta, oster, 10:00etatik 13:00etara egongo da za-
balik. Biblioteka Kultur Leioaren so-
lairu bitan banatuta dago: bigarren
solairuan, Ume eta Gazteen Liburutegia
dago. Besteak beste, Umeteka edo
0 eta 4 urte bitarteko umeentzako gu-
nea dauka. Bestalde, hirugarren solai-
ruan dago Liburutegiko Atal Nagusia.
Halaber, erabiltzaileek eskura dauka-
te Interneten sartzeko gunea. ◀

Arteako hipermerkatua saldu du Eroskik, zorrak kentzeko

A rtea merkataritza-guneko hi-
permerkatua eta beste 10 esta-
blezimendu saldu ditu Eroskik,
358 milioi euroan. Gonuri Harizartean
elkartea egin du salmenta; sozietate
horren jabetzaren %45 dauka Eros-
kik. Gonuri Harizarteanenak ziren sal-
tokiak; alokatuta zeuzkan Eroskik.
Invesco inbertsio-konpainia estatuba-

tuarrak erosi ditu, eta alokairu-kon-
tratuak mantenduko dizkio Arrasateko
taldeari. Iazko urtarrilean, 22 finan-
tza-erakundegaz daukan 2.605 milioi
euroren zorra berriro finantzatzeko
akordioa lortu zuen Eroskik; besteak
beste, desinbertsioei lotutako 300 mi-
lio euroren zorra zeukan. Zati hori or-
daindu du salmentagaz. ◀



Ez dira gutxi Leioan hutsik dauden lonjak.

Hutsik dauden lokalak saltokien erakusleiho bihurtu gura dituzte

Leioa Berpiztu egitasmoan lan egiteko, zortzi langabetu leioaztar kontratatu ditu Udalak; hutsik dauden edo erabiltzen ez diren lokalak atondu eta merkaturatzea dauka helburu Behargintzaren proiektu horrek.

Lanbideren bitartez sortutako obra-brigada berri bat hutsik dauden lonjak atontzen dabil; izan ere, aipatutako lokalen ikusgarritasuna hobetu gura du Udalak. Besteak beste, erakusleioa ipi-
niko diete, alokatzeko aukera gehia-
go izan dezaten. Agintari leioaztarrek
azaldu dutenez, udalerrian dauden
merkataritza-establezimenduei eskai-
ni gura dizkiete atondutako lokalak.
Hala ere, bertan ez litzateke saleroske-
tarik egingo; dende salgai dauzkaten
produktuak ikusgai baino ez lirateke
jarriko. «Erakusleio handi bilakatu
nahi ditugu kaleak, modaren, osaga-
rrien, dekorazioaren, eta abarren al-
deko apustua eginez», zehaztu dute.

Gaur egun, udal jabegokoak diren lon-
jetan dabilta lanean. Hala ere, dabor-
duko lokal pribatuaren ugazabakaz ere
harremanetan hasi dira.

Enpresa-mintegia

Martxoaren 10era arte, Ibaiondoko
enpresen udal mintegian leku bat es-
katzeko aukera egongo da. Esleipena
urte birako izango da hasiera batean,
alokairuan, erosteko aukera barik.
Hala ere, adjudikaziodun enpresak
epea, gehienez, urtebete luzatzea eska
dezake, esleipenaren azken bi hila-
beteetan. Esleipen-prozesua eta fun-
tzionamendua arautzen dituzten oi-
narriak Udalaren eta Behargintzaren
webguneetan daude eskuragarri. ◀

Leioa 2016

Lau egunez euskal sorkuntzaz gozatzeko parada

OTSAILAK 25 osteguna
"Zerura eroria"
Anodino Teatroa
ANTZERKIA (ESTREINALDIA) - 20:30 h / 8 €

OTSAILAK 26 ostirala
"Malmö"
Khea Ziater
FILM ESZENIKOA - 20:30 h / 8 €

"Gau beranduan"
Harkaitz Cano, Petti,
Joxan Goikoetxea
MUSIKA-LITERATURA - 22:00 h / 8 €

OTSAILAK 27 larunbata
"Dantza gurea"
Idurre Azkue, Joseba Irazoki
DANTZA-MUSIKA - 20:30 h / 6 €

Joseba B. Lenoir Gang
MUSIKA - 22:00 h / 8 €

OTSAILAK 28 igandea
"Herriak"
Txalo
ANTZERKIA - 19:00 h / 10 €

BONOA: 30 €
6 ikuskizun eta
Kultur Maratila kit
bat opari

ARTEDRAMA - KULTUR LEIOA
Jose Ramon Aketxe Plaza, 11
48940 Leioa (Bizkaia)
www.kulturleioa.com

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz

0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.

Ingelesa 4 urtetik. Frantsesa DBHn.

Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.

Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.

Ikastolen Elkarteko Leioako Ikastola bakarra.

Deitu eta informa zaitez!

Tlf: 94 464 23 64 - 94 464 33 07

Artaza auzoa 84 (LEIOA)
info@betikoikastola.net www.betikoikastola.net

Sopela

Urdulizko ospitaleko sarbideak, auzitan

Urtarrileko udalbatzan ospitalearen gaia jorratu zuen EH Bilduko Juan Sanchez zinegotziak, galde-eskeen txandan; Gontzal Hermosilla alkateak erantzun zion.



Urdulizko Udalak sarbideak Osteikotik egitea jarri zuen plangintzan.

Urtarrileko udalbatzan Sopelako EH Bilduk berrartu zuen Urdulizko ospitalearen gaia. Koalizio independentistaren arabera, aurretik Lan eta Zerbitzuetako Udal Batzordean idatzizko galdera erregistratu zuten, Sopelako Udalak aurreikusitako trafikoen aukeren eta dauzkan azterketen informazioa eskatzeko.

EH Bilduren arabera, Udal Gobernuak erantzun zion ospitaleak «eragingo duen trafikoa neurtu duen azterketarik ez dagoela». Gontzal Hermosilla alkateak gauza bera ukatu zion Susan elkarteko ordezkariari, azaroan egingako udalbatzan. Koalizioaren ustez, baieztapen bi horiek faltsuak dira, eta horregatik urtarrileko udalbatza erabili zuen, orain arte egin eta argitaratu duten txostenen berri emateko. Gontzal Hermosilla alkate jeltzalearen iritzia jasotzen ahalegindu da HIRUKA, baina, momentuz, alkateak udalbatzan esandakoaz aparte, ez dago berririk.

Juan Sanchez EH Bilduko zinegotziak lau txosten ekarri zituen gogora urtarrileko udalbatzan: Osakidetza

eskatutako «Análisis de necesidades de oferta sanitaria de atención especializada en la Comarca Uribe», trafikoa zenbatzen ez duena, baina gaitxoaren eta langileen estimazioak egiten dituen; Sopelako aurreko Udal Gobernuak eskatutako «Estudio de las afecciones en la movilidad del nuevo hospital de UK y valoración de alternativas de la red viaria de Sopela», trafikoa zenbatzen duena eta ospitaleak egunero Larrabasterran 2.677 ibilgailu gehiagoren trafikoa eragingo lukeela dioena; «Caracterización de la movilidad generada por el Hospital de Urduliz y estimación del impacto medioambiental», Urdulizko Udalak darabilena; eta 2010ean EAJren Udal Gobernuak osatutako «Plan de Movilidad Urbana Sostenible de Sopela», ospitalea aipatzen ez duena.

Gontzal Hermosilla alkateak azken udalbatzan esandakoaren arabera, «teknikariek hobesten duten eta kontsentsua eragiten duena egingo dugu. Sopelan trafikoa eragiten bada, ahalik eta gutxien izan dadin ahaleginduko gara».

Film bi egongo dira ikusgai egunotan, Kurtzio kultur etxean

Datozen egunotan, film interesgarri bi ikusi ahal izango dira Sopelako Kurtzio kultur etxean. Batetik, zapatuan, hilak 20, *Le cochon de Gaza* (Txerri bat Gazan) pelikula europarra proiektatuko dute 20:00etan, Gizarte Zinema Zikloaren barruan, doan. Arabierazko bertsioan eta euskarazko azpitituluakaz emango dute. Sylvain Estibal zuzendariaren bigarren film horrek Palestinaren okupazioa lantzen du, komedia tragiko baten bidez; Cesar Saria irabazi zuen. Bestetik, hilaren 25ean, eguna, *Una canción para Marion* filma emango du Itzartu emakumeen elkarteak Genero-ikuspegiko zikloaren barruan, 18:00etan.

Udal ludotekan izena eman daiteke otsailaren 29ra arte

Udal ludotekan izen-emateak hilaren 29ra arte egin daitezke, Kurtzio kultur etxean, 2004 eta 2012 bitartean jaioetako neska-mutilak martxoaren 1etik ekainaren 30era gozatzen joan daitezke. Prezioak honakoak dira: 20 euro, seme-alaba bategatik; 18, seme-alaba bigatik; eta 16, hiru seme-alaba edo gehiagotatik. Ludotekan txanda bi egingo dira: lehenengoa 4-7 urte bitarteko umeentzat da, honako ordutegian: astelehenetik barikura, 17:00etatik 18:30era; eta zapatuetan, 11:00etatik 14:00etara. Bigarren txandan, 8-12 urte bitartekoak egongo dira: astegunetan, 18:30etik 20:00etara; eta zapatuetan, 17:00etatik 20:00etara.

Oporrak Bakean ekimenean parte hartzeko deia, zabalik

Sopelako Nuyum elkarteak familia bila dabil Oporrak Bakean egitasmorako. Programa horri esker, saharar umeek errefuxiatuen kanpamenduetako baldintza gogorak atzean utz ditzakete udako bi hilabeteetan, basamortuko tenperatura altuetatik asago. Euskal Herrian diren bitartean, neska-mutilek osasun-azterketa egitea eta elikadura egokiagoa jasotzea ahalbidetzen du programak.

Ekimenean parte hartu, Saharako 10 eta 12 urte bitarteko umeren bat etxean hartu eta behin-behineko harreman-familia izateko interesa duten guztiek edozein zalantza edo kezka argi dezakete, Nuyumegaz harreman



OPORRAK BAKEAN

netan ipiniz gero. Pasa den urtean, Hego Euskal Herriko 460 familiak parte hartu zuten ekimenean. Nuyumek akordura ekarri duenez, kanpamendu horietan 40 urte iraun du saharar herriaren zati handi batek.

info+: 695 788 185 / nuyum_sopelana@yahoo.es

Jarrai gaitzazu:

hirukaEus @hirukaEus

www.hiruka.eus

TXIBERRI
EDANTOKIA

FRONTOI PARTIKULARRA

AITA GOTZON 4, URDULIZ
94 676 07 15

Haur Hezkuntzatik Batxilergora

Gatzarriñe bidea 47, Sopela
Tfnoa.: 94 676 02 66 / 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus
www.anderdeunaikastola.eus

ander deuna
I K A S T O L A



Hitzen kliska

JUAN LUIS
MUGERTZA UNANUE
Irakaslea eta idazlea

Akorduen akordua akordatzen

Berangora heldu berritan, Eretza eta Neba-arrebak tabernetara joaten gine-la akordatzen naiz.

Akordatzen naiz herriko pre-soen argazkiak Sabino Arana ka-lean egoten zirela. Ahateak, lasai asko, kioskora arto-krispetak ja-tera joaten direla. «Koiu» esaten dutela, baina euskaraz, gehienez, «Agur!» baino ez. Eta 'Papi', 'mami' hitzak umetxo askoren ahotan lozorroan daudela akor-datzen naiz.

Akordatzen naiz autoak edo-zein lekutan aparkatzen dituzte-la, eta ez da ezer gertatzen. Athle-ticek jolastean, tabernetan jende gehiago dagoela, eta Erreal zalea bazara gaizki begiratzen dizute-la. Herriak enparantza nagusirik ez duela, udaletxea bakar-baka-rrik dagoela, eta urte asko bertan bizi eta gero, oraindik herria ez dudala ezagutzen. Sasoi batean guraso asko, diskoteka zela eta, oso kezkatuta zeudela akorda-tzen naiz.

Akordatzen naiz negozio txi-kiak urdurik egoten direla, eta askok porrot egin ohi dutela. EROSKI indar handia duela, baina 'Mercadona' hitza entzun, eta bertako langileak ere beldur-tuta daudela.

Gazteak inguruko herrietara joaten direla, eta herrian ez du-tela inolako konpromisorik har-tzen akordatzen naiz.

Akordatzen naiz suteek te-lekomunikabide guztietan Be-rango piztu zutela. Herriaren gainean esaera zahar bat (gaz-teleraz, baina!) «Berango, sartén y sin mango» erabiltzen dutela. Elizako kanpai hotsek, inolako lotsarik gabe, nahi dutenean or-dua jotzen dutela ere akordatzen naiz.

Hori bai, akordatzen naiz txo-koetan egindako jatorduetan, pattarra eta txokorra eskuetan, bertakoek kantuan egiten dute-la; eta, orduan, Berango bezala-ko herririk munduan ez dagoela diola letrak. ◀

Berango



Hainbat zabu berritu, eta lurzorua ordezkatu dituzte. ©ERANGOKO UDALA

Udalerriko lau haur-parke berritu ditu Udalak, bertako segurtasuna handitzeko

Umeentzako lau jolasleku hobe-tzeko beharrei ekin dio Udalak, modernizatzeko eta segurtasu-na areagotzeko helburuagaz. Morea-gan, denera, sei zabu hartzen zituzten bi elementu kendu, eta trebetasunera-ko berri bat gehitu dute, sokak eta pa-saguneak dituen, erabiltzen dituzten umeen adin-tartea handitzeko. Lauza-zoladura ere aldatu dute, eta kautxuz-koa, ezarri. Lantarten, oster, zabu eta txirrista bana aldatu dituzte, eta kulunka berria ipini dute. Era berean, aparatu zaharren malgukiak ordez-

katu dituzte. Axcganeko Ricardo Otxoa parkean ere zabuak kendu eta berriak jarri, eta trebetasun-jokoa ipini dute. Azkenik, Berangoeta kultur etxearen atzealdeko parkean ere aldaketak egin dituzte. Guztira, elementuak ordezka-tzeko gastua 64.000 eurokoa izan da; kautxu-lurzorua hobetzeko inbertsioa, berriz, 13.000 eurokoa.

Halaber, Moreagako parkea estal-tzeko lanak lizitazio-prozesuan daude. Proiektu horri dagokionez, aurretik, he-rritarren parte-hartze prozesu bati ekin beharko diote. ◀

Sute-detektagailuak jarri dituzte 80 urtetik gorako enxeetan

Adinekoak bizi diren hainbat etxebizitzatan suteak saihe-terko, ke-detektagailuak jar-tzeko prozesua burutu du Berangoko Udalak; mota horretako 55 gailu eza-rrituzte guztira. Nerea Jimenezek zuzentzen duen Gizarte Ongizate Sai-lak bideratu du udalerriko nagusiak babesteko ekimen hori. Arduradunek azaldu dutenez, sute-detektagailu ho-riek denak pertsona gazteagoakaz bizi ez diren 80 urtetik gorako enxebizi-tzetan ezarri dituzte, doan. Halaber, jakinarazi dutenaren arabera, gailu horiek guztiak ondo funtzionatzen du-tela bermatzeko urtean-urtean egin beharreko berrikustek ez du ezelako kosturik izango adinekoentzat.

Guztira, 77 etxebizitza aztertuta

Etxebizitzetan suteak ekiditeko kan-paina hori aurrera eroan ahal izate-ko, edadekoen 77 etxebizitza bisitatu dituzte, eta horietako 55ek doako ins-talazioa lortu dute. Gainera, proiektu horrek behatoki soziala ere hartzen du; hortaz, auzotar nagusi horiek de-nek eskubidez dute zerbitzu guztien gaineko informazio osoa jasotzeko aukera izango dutela jakinarazi dute udal arduradunek. ◀

info+: www.berango.net

Gorliz

Gorlizko natur gune ugariren gaineko liburua, laster kalean

Berez, Gorliz izenburudun liburu-bil-dumak badu bere azkenengo alea, seigarrena, hain zuzen ere. Oraingo ho-netan, udalerriko landak, eukalipto-sailak, ur-bazterrak eta beste habitat txiki batzuk izango ditu berba-gai lanak. Hilaren 19an, barikuan, Sertutxenan, 19:00etan aurkeztu dute. Aurrekoetan udalerriko bestelako kontuak jaso zi-tuzten, barbarako: lurmuturrak, hon-dartza, dunak eta Ermua mendia.

Pablo Müllerren lanak

Joan den hilaren 10ean, Pablo Müller goitizena duen Javier Bermudez Valen-cia idazle gorliztarrak bere azkenengo lana aurkeztu zuen Algortako Villa-monte kultur etxean: *Contra el miedo*. Gorliztarrak hainbat poema batu ditu lan horretan. Liburu-aurkezpenean, Eva Biggik esan zuenez, «memoriaren liburu bat da, ezkutuko memoriaren; bi-zitza ospatzeko liburua, izan zena, du-guna eta izango duguna». ◀

Urduliz

Udalekuetan izena emateko epea zabaldu dute daborduko

Aurtengo udalekuetan izena ema-teko epea zabalik dago, hilaren 29ra arte, eta Urdulizko kultur etxe-ra jo beharko da. Azaldu dutenez, iaz ume asko kanpoan gelditu ziren, eta «hori saihesteko asmoz», aurretiko izen-ematea egingo dute, jasotako es-kariaren arabera udalekuak antolatze-ko. Aurtengo udalekuak ekainean eta uztailan izango dira. ◀

info+: euskara4@uribekosta.org

Urdulizko Industrialdeak EMAS ziurtagiria jaso du

Urdulizko Industrialdea SAK EMAS ingurumen-ziurtagiria jaso du, EAEko beste 27 erakundegaz batera. Izendapen horren bidez, Europar Ba-tasunak ingurumen-kudeaketako sis-tema bat ezarri duten eta etengabe hobetzeko konpromisoa hartu duten erakundeak aintzatesten ditu, ikuska-

ritza independenteen bitartez egiaz-tatuta. Iñigo Urkullu lehendakariak adierazi duenez, «enpresok benetako «ingurumen-indarra» dira; 2.887 era-kunde dira, 10.000 instalazio baino gehiago dituztenak, eta «garapen-ere-dua aldatzeko hasi dugun prozesuan, eraldaketa-gaitasun handia dute». ◀

Plentzia

Bulegotik Kalera, udalerria hobetzeko

Hilaren 2an, Plentziako Udalak dinamika berri bat ipini zuen martxan: Bulegotik Kalera. Egitasmo horregaz, Bulego Tekniko, Udaltzaingo eta Alkatetzako ardura-dunek hiribilduko hainbat leku bisitatu zituzten. Irteera horiek hilean behin egingo dituzte aurrerantzean, bisitatutako gunek hobetze aldera. Hala, lehenengo irteeran honako tokiak bisitatu zituzten: Zabalazpi, Ardantzako errugbi-zelaia, Mungia bidea, Gaminiz kalea, Antolin Deuna plazatxo eta Andra Mari bidea. Horietan denetan,

hobetu beharreko gauzak identifikatu, eta hurrengo egunetan, horiek hobetzeko lanak abiatu dituzte.

Uso-koloniak kontrolatzeko lanak Udalerrian dauden uso-koloniak kontrolatzeko lanak hasi berri ditu Udalak. Horretarako, Azurtegiando plazan usoak elikatzeko ohitura aldatzeari ekin dio. Horrenbestez, uso gehienei herriko leku batean eta egunero ordu berean elkartzeko ohitura sortuko die, 2-3 hilabetez. Beraz, usoei jakirik ez emateko eskatu du Udalak. ◀

Mozorro-jaiaren azkenengo geltokia: Danontzat gaztetxeko inauteri tematikoak

Munduko herriak gogora ekarriko dituzte hilaren 20an, zapatuan, Plentziako Danontzat gaztetxean. Egun horretan, munduko puntu guztietatik «etorritako» lagunak hurbilduko dira gune autogestionatura, VIII. Inauteri Tematikoak direla-eta. Egun osoko egitaraua prestatu dute horretarako, 13:30etik hasita: triki-poteoa, bazkaria, bingoa, antzerki-saioak eta elektro-txaranga. Gauean, berriz, jaia izango dute gazteek, Urrats erromeria-gaz eta DJ Jo ta Txogaz. ◀

facebook.com/danontzatgaztetxea



Potxingoak kalean

IRANZU
ARROITAJAUREGI GUTIERREZ
Bilgune Feministako kidea

Aurrekontuek ez dute ematen hainbat kontutan

Getxoko Emakumezkoen eta Gizonezkoen Berdintasunerako III. Planari buruz irakurri dugu egun hauetan komunikabideetan. Egia esan, ez nuen plan horren informazio berri handirik, Getxoko Udalaren web orrian sartu nintzen. Hirurogeita hamabi orri, non marko kontzeptuala, metodologia, eragin esparrua eta abar azaltzen diren. Plana interesgarria iruditu zitzaidan, arlo ezberdinetan eragiten du; hezkuntzan, osasunean, kulturean, kirolean... eta ez dakit zergatik, hori guztia aurrera eramateko (%67a bete dutela eta %10a bidean dagoela esan dute) Udalak, diru partida handia beharko zuela bururatu zitzaidan. Kuriositateak bultzatuta, 2015eko aurrekontuen proiektuan sartu nintzen. Berdintasun kontzeptuan gastua, biztanleko hiru eurokoa dela jakin nuen; gastu guztiak biztanleko mila berrehun eta bederatzi euroko direla kontuan hartuta.

Harrituta geratu nintzen orduan, planean bertan aipatzen duen moduan, legea betetzeko plana da, eta harago, badakigulako giza eskubideak hausten direla berdintasuna lortzen ez dugun bitartean. Ez naiz diru-kontuetan aditua, baina gauza bat argi daukat; biztanleko hiru euro ez da nahikoa Getxoko biztanleen erdia baino gehiagok jasotzen dugun eskubide murrizketak gainditzeko. Arazoa handia da, ideologia matxista duen gizarte batean bizi gara, non emakumeak baztertuta eta diskriminatuta gauden. Ahoz gora esaten dut Getxoko Udalak askoz gehiago egin behar duela, benetako aukera berdintasuna erdiesteko, eta emakumeen eskubideak defendatzeko.

Hala ere, emakumeok ez gara inoren zain lotuko, bai Getxon bai mundu osoan, borrokatzen jarraituko dugu gure eskubideak izateko, pertsona askeak izateko. ◀

Uribe Kosta

Emakume Langileen Eguna antolatzen hasi dira daborduko

Urtero legez, martxoaren 8an Emakume Langileen Eguna egingo da mundu osoan, baita Uribe Kostan ere. Hori dela eta, beste urte batez, Plentzia eta Gorlizko gazte-mugimenduak, Barrika, Plentzia eta Gorlizko beste hainbat elkarren babes eta atxikimenduagaz, «sistema patriarkala salatzeko» kontzentrazioa egingo dute egun horretan. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, «mobilizazio horretara ez da alderdi ezta instituziorik gehituko, alderdikeriak ekiditeko». Hala, gura duten elkarte edo kolektiboek kontzentrazio hori babesteko prest egotekotan, izena emateko deia zabaldu dute. Bestalde, norbanako moduan parte hartzea gura dutenek ere euren laguntza emateko aukera izango dute, data horri lotuta egin daitekeen feminismoaren inguruko berbaldi, tailer edo edozelako ekintza antolatuta. ◀

atxikipenak: danontzatgaztetxea@gmail.com
plentziazg@gmail.com

Eskualdeko esperientziak, euskal iraunkortasun azokan

Berdeago, Euskal Ingurugiro Iraunkortasun Azoka egingo da asteakab honetan, hilaren 19tik 21era bitartean, Durangoko Landako Gunean. Aurtengoa hirugarren edizioa izango da, eta antolatzaileek azaldu dutenez, «iraunkortasunarekin lotura duten gairik garrantzitsuenen sustatzaile bilakatu da».

Azokaren helburu nagusia eragin-kortasun energetikoa, mugikortasun jasagarria eta hondakinen kudeaketan, espazio-erreferente bat eskaintzea da. Horretarako, 150 enpresa, 50 hizlari eta 60 ekimen hartuko ditu Durangok asteakab honetan. Horien guztien artean, Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko kideek Ukanauto eta Bizimeta alokairu-sistemen esperientziak azalduko dituzte hilaren 19an, 18:00etan, «Tokian tokiko ekimen arrakastatsuak» izeneko berbaldian.

Bestalde, gonbidatutako enpresa guztien artean, Uribe Kostatik Eran-



Ukanauto eta Bizimeta aurkeztuko dituzte.

dioko Enekuri Motor eta Leioako Leioa Autogas gonbidatu dituzte, besteak beste. Enpresa biak mugikortasunaren alorreko sektorekoak dira. Lehenengoa, BMW eta Mini ibilgailuen kontzesionario ofiziala da; bigarrenean, berriz, ohiko ibilgailuak gasa/GLPa erregaitzat erabili ahal izateko transformazioak egiten dituzte. ◀

info+: berdeago.com

Euskaldun baten hizkuntza bidaia lana, berbagai Sopelan

Otsailaren 19an, barikuan, Karmelo Ayesta zeberioarrak berbaldia emango du Kurtzion, 19:00etan. Bertan, Ayestak *Euskaldun baten hizkuntza bidaia* liburuaz egingo du berba. Antolatzaileek diotenez, «euskararen erabilerak izan duen bilakaerak agerian jarri du aldaketa sakona dela hizkuntza-ohitura berriak barneratzea». Hala, hizkuntza-bidaia hori erraztea izango

da berbaldi horren helburu nagusia.

Bestalde, Uribe Kostako Berbalagunen *Ezetz asmatu!* lehiaketaren urtarileko zozketa egin zuten, eta hil honetako galdetegia prest dagoela jakinarazi dute; Sopela, Urduliz, Plentzia, Gorliz eta Armintzako kultur etxeetan eta Barrikako liburutegian daude erantzunak uzteko kutxak; hilaren 29ra arte egongo da horretarako aukera. ◀

Bizkaibusek telefono zenbaki berria dauka laguntzarako, doan

Bizkaibusek erabiltzaileari laguntza eta informazioa emateko doako telefono-zenbaki berria du: 946 125 555. Hala, tarifa laua kontratatuta dutenek ez dute gehiago ordaindu behar izango Bizkaibus zerbitzuari lotutako edozein kontsulta egiteko. Aurreko zenbakia-gaz (902 222 265), deia aparte ordaindu beharra zegoen, halako zenbakiek ez baituzte tarifa horiek onartzen. ◀





Aurreko aste-akabu bietan, oro har, ospatu dituzte uribekostarrek Aratustreak hemen, Inauteriak han, Inauteak nonbait. Gogoak aginduta jantzi dira urliak, sandiak eta berendiak; mozorrotu batzuk, benetako izaerari gorazarre eginez besteak. Ohiturak eta tradizioa ezagutarazi eta hurbiltzeko asmoz irten dira hainbat lekutan, tradizioari barrez beste zenbait txokotan. Berango, Erandioigoia, Gorliz eta Algortan Hodei Torresek egindako argazkien aukeraketa baino ez da hau, gehiago gura baduzu: www.hiruka.eus atarian.

Aratustreak, gurean





SOPELA

Karla Imbert gaztea izango da Kurtzioko oholtzara jotzen lehenengoa. © SOPELAKO UDALA

The Great Barrier eta Karla Imbert, kontzertuan

Bariku honetan, otsailak 19, Karla Imbert abeslari sopeloztarrak eta The Great Barrier folk-rock talde uribekostarrak kontzertua emango dute Kurtzio kultur etxean. Emanaldia 20:00etan hasiko da; sarrerak 5 euroan daude ohiko lekuetan. Batzuk zein besteek ingelesez kantatzen dute. Kurtzioko arduradunek baieztatu dutenez, Imbert gaztea izango da

oholtzara igotzen lehenengoa. Dionez, txikitatik gustatzen zaio abestea, baina «ezkutuan gorde» izan zuen orain dela urte gutxitara arte; lehenengo kontzertua 2013an eman zuen. The Great Barrier seikoteari dagokionez, 2012an, Bilbo Hiria lehia-keta irabazi zuen, pop-rock atalean. 2015eko hasieran, beriz, *Winter greets you* lehen diskoa atera zuen;

bederatzi kantuz osatuta dago. Aitziber Omagogeaskoak (ahots nagusia, gitarra akustikoa eta mandolina), Mari Carmen Guillenek (teklatura, perkusioa eta ahotsak), Oier Aldekoak (baxua), Iñigo Larrazabalek (gitarra eta ahotsak), Alvaro Barriusok (gitarra eta metalofonoa) eta Joseba Azabalek (bateria eta perkusioa) osatzen dute taldea. ◀

LEIOA

Tradizioen oroimenetik egindako bidaia, Feten Feten musika-taldeagaz

Bariku honetan, otsailak 19, Jorge Arribas eta Diego Galazen *Feten Feten* musika-proiektuaz gozatzeko aukera egongo da Kultur Leioako entzungelan, Musika Gertu zikloaren barruan. Emanaldia 21:00etan izango da; sarrerak 8 euroan daude. Bikote horren konposizioek dantza-erritmoak gidatuko gaituzte fox-trot, bals, txotis, seguidilla eta habaneretan zehar. ◀



LEMOIZ

Armintzan daude ikusgai ArgIHizkiak lehiaketaren lanak

Lemoizera heldu da ArgIHizkiak literatura-lehiaketaren erakusketak. Hala, Uribe Kostako edo bertonez bizi diren 10 argazkilariren irudi bana, eta horietan oinarritutako euskarazko 20 testu labur onenak ikusi/irakurri ahal izango dira, hileraren 28ra arte, Armintzako kultur etxean. Astegunetan bisitatu ahal izango da, 16:30etik 20:00etara. ◀

2016/02/20 - 19:00

Tandem taldearen kontzertua

Berango Antzokia | Berango

Endika Basterretxeak eta Leire Lopezek saio akustikoa eskainiko dute, gitarra eta ahotsa. Sarrera, doan.

2016/02/20 - 20:00

Le cochon de Gaza filma

Kurtzio kultur etxea | Sopela

Gizarte Zinema Zikloaren barruan. 16 urtetik gorakoentzat. Arabieraz, euskarazko azpitulua. Sarrera, doan.

2016/02/20 - 20:00

La boda de Betty Blue umorezko antzeziana

2016/02/18 - 18:00

El mito del amor romantico berbaldia, Alicia Garciagaz

Landa Doktoaria, 3 | Sopela

Itzartu emakumeen elkarteak antolatuta. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2016/02/18 - 18:00

Ipuinekin jolasean emanaldia

Astrabuduko kultur etxea | Erandio

Lur Korta ipuin-kontalariagaz. 1 eta 3 urte arteko umeentzat. Euskaraz. Sarrera, doan.

2016/02/18 - 18:00

Beldurrezko ipuinak

Gobelako haur-liburutegia | Getxo

Maidar Galarza ipuin-kontalariagaz. 5 eta 10

Euskaldun baten hizkuntza-bidaiaz

Uribe Kostako Berbalagun egitasmoak antolatuta, barikuan, hilak 19, *Goza daiteke gehiago*. *Euskaldun baten hizkuntz bidaia* liburuaz berba egingo du Karmelo Ayesta zeberioarrak. Saioa 19:00etan izango da, Kurtzion; doan. ◀

Oraindino ez dira amaitu aratusteak

Zapatuan, otsailak 20, Inauteri Tema-tikoen zortzigarren edizioa antolatuko du Danontzat Gaztetxeak. Besteak beste, triki-poteoa, bazkaria, jolasak eta dantzaldia egingo dira. «Munduko herriak» izango da mozorrotzeko gaia. ◀

Amonaren sutondoko ipuinak entzungai

Sendik antolatuta, ume eta gurasoen-tzako saioa egongo da domekan, otsai-lak 21. Hitzordua 17:30ean ipini dute, Villamonteko kultur etxean; sarrera, doan. Hala ere, lekua hartu behar da. ◀
izen-ematea: 685 732 963 / sendigetxo@yahoo.com

2016/02/18 - 19:00-20:30

Euskarazko Irakurleen Kluba

Kurtzio kultur etxea | Sopela
Wladimir Kaminer idazlearen *Errusiar diskoteka* liburuaz berba egingo dute. Euskaraz. Doan.

2016/02/18 - 19:45

Literatura-berbaldia

Algortako Kasinoa | Getxo
Getxoko Kultur Etxeko sormen-idazketaren tailerrak antolatuta. *El comite de la noche* (Belen Gopegui) liburuari buruzko solasaldia. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2016/02/19 - 21:00

Pride filma

Areetako musika-eskola | Getxo
Cinema Paradiso zikloaren barruan. 7 urtetik gorakoentzat. Ingelesez, gaztelaniazko azpitu-luakaz. Ostean, berbaldia ere egongo da. Sarrera: 2,90 euro.

2016/02/20 - 2016/02/22 - 20:00

Joy filma

Kultur Leioako entzungela | Leioa
7 urtetik gorako ikusleentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 4,50 euro.

2016/02/20 - 2016/02/21 - 17:30

Carlitos y Snoopy filma

Kultur Leioako entzungela | Leioa
Denentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 3,50 euro.

2016/02/20 - 10:00

Zuhaitzen landaketa, Azkorrin

Bidezabaleko metro-geltokia | Getxo
Tosu Betirako taldeak antolatuta. Azkorriko parkingean 10:30ean ipini dute hitzordua. Izen-ematea: tosubetirako@gmail.com

2016/02/20 - 17:00 - 19:00

Ezagutzen Azoka

Boulevard | Leioa
Herrigune ekimenak antolatuta. Gura duen guztiak parte har dezake. Doan.

2016/02/20 - 18:00

Pesadillas filma

Kultur etxea | Urduliz
7 urtetik gorako ikusleentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 3,50 euro.

2016/02/20 - 18:00

Sopelako XI. Duatloia

Udaletxeko plaza | Sopela
Hirubi Triatloi Taldeak antolatuta. Informazio gehiago eta izen-ematea: www.triatloi.org

Astrabuduko kultur etxea | Erandio
Glu Glu taldeagaz. Gaztelaniaz. Sarrera: 3 euro.

2016/02/20 - 20:15

Los odiosos ocho filma

Kultur etxea | Urduliz
18 urtetik gorako ikusleentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 4,50 euro.

2016/02/21 - 08:00

Argazki-irteera, Santoñara

Astrabuduko taxi-geltokia | Erandio
Astrabuduko Fotoclub taldeak antolatuta. Doan.

2016/02/21 - 10:00

Bizkaiko Txakur-kros Sariketa

Urezarantzako kiroldegia | Gorliz
Gorlizko Kiroi Taldeak antolatuta. Lasterketa 12:00etan hasiko da.

2016/02/21 - 17:00

La oveja Shaun animazio-filma

Areetako musika-eskola | Getxo
Denontzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 2,10 euro.

2016/02/23 - 17:30-19:30

Generoa eta hezkuntza

berbaldia, Amelia Barquinegaz Zabala ikastetxea (Algorta) | Getxo
Sendik antolatuta. Amelia Barquin Lopez Filologian doktoreak eta irakasleak emango du. Euskaraz. Izen-ematea: 685 732 963

2016/02/23 - 19:30-21:00

Argazkigintzaren historiari

buruzko doako eskola Atxutegi, 15 (Astrabudua) | Erandio
Astrabuduko Fotoclub taldeak antolatuta. Gaztelaniaz izango da.

2016/02/23 - 20:00

Musarañas filma

Kultur Leioako entzungela | Leioa
Perseo zineforumaren barruan. Gaztelaniaz. Sarrera: 2,50 euro.

2016/02/24 - 19:30


Uribe Kostako Irakurzaleen

Txokoaren bilera Algortako kultur etxea | Getxo
Oraingoan, Iñaki Irazabal gonbidatu dute, *Mendaroko txokolatea* liburuaz berba egin dezan. Euskaraz. Sarrera, doan.

2016/02/25 - 20:00

Landslide rock taldea

Kandilejas taberna (Itzubaltzeta) | Getxo
Getxon Zuzenean ekimenaren barruan. Doan.



Euskarazko film laburrak, Sopelan

Eusko Jaurilaritzak kudeatutako Zineuskadi egitasmoak 2015eko otsailaren amaieran aurkeztu zuen sei film labur-
rrez osatutako *Pixkanaka-pixkanaka* bilduma. Berba bako
edo euskarara bikoiztutako animaziozko lanak dira denak,
eta urte bitik gorako umei zuzenduta daude. ◀

Noiz: Otsailak 21, domeka.
Ordua: 18:00
Non: Kurtzio kultur etxea.
Sarrera: Doan.

ARGAZKIETAN OINARRITUTAKO
TESTU LABURREN IV. LEHIAKETAREN
ERAKUSKETA

argihizkiak.com

argihizkiak Lemoizen

Astegunetan
16:30-20:00

Otsailaren 28ra arte
Armintzako kultur etxean





Ramon Agirre, Kandido Uranga eta Jose Ramon Soroizek antzezten dute Begoña Bilbao Lejarzegik zuzendutzen duen *Heroiak* lana . © TXALO PRODUKZIOAK

Egitaraua

Otsailak 25, eguena

20:30 *Zerura eroria* antzeztanaren estreinaldia (Anodino Teatroa). Kultur Leioan. Sarrera: 8 euro.

Otsailak 26, barikua

20:30 *Malmö* film eszenikoa (Khea Ziater), Kultur Leioan. Sarrera: 8 euro.

22:00 *Gau Beranduan* musika eta literatura emanaldia (Harkaitz Cano, Petti eta Joxan Goikoetxea), Kultur Leioan. Sarrera: 6 euro.

Otsailak 27, zapatua

20:30 *Dantza gurea* dantza eta musika ikuskizuna (Idurre Azkue dantzaria eta Joseba Irazoki musikagilea), Kultur Leioan. Sarrera: 6 euro.

22:00 Joseba B. Lenoir Gang-en kontzertua. Kultur Leioan. Sarrera: 8 euro.

Otsailak 28, domeka

19:00 *Heroiak* antzezlana (Txalo Produksioak), Kultur Leioan. Sarrera: 10 euro.

info+: www.kulturleioa.com
www.artedrama.com/kultur-maratila

Zabal dadila Maratila!

Artedrama plataformak eta Kultur Leioak bosgarrenez antolatu dute Kultur Maratila, euskal sorkuntzari begirako zikloa. Hitzordua, hilaren azkenengo aste-akabuan.

Otsail amaieran, maratila askatu eta euskal kultur sormen freskoa sartuko da Kultur Leioara. Aurten, lau eguneko zikloa antolatu du Artedrama arte eszenikoen plataformak, Kultur Leioagaz elkarlanean. Otsailaren 25ean hasi eta hilaren 28ra bitartean, sei ikuskizunek osatuko dute egitaraua. «Euskal sorkuntzaren plaza,

askotariko artistek eta publikoak bat egiten duten espazioa» zabaltzeko eta ezagutarazteko helburuagaz; horregaz goatzera gonbidatzen du Kultur Maratilak.

Antzerkia, film eszenikoa, musika, literatura eta dantza izango dira aurtengo protagonistak. Eguenean, *Zerura Eroria* antzerki-lanaren estreinaldi ofizialagaz zabalduko du Anodino

Teatroa taldeak Maratila; hitzordua 20:30ean ipini dute, eta sarrera, 8 euroan. Barikurako, zita bikoitza iragarri dute: 20:30ean Khea Ziater taldearen *Malmö* film eszenikoa ikusteko aukera egongo da; horretarako sarrera, 8 euroan; eta 22:00etan, *Gau Beranduan* musika eta literatura ikuskizuna eskainiko dute Harkaitz Cano idazleak, Petti eta Joxan Goikoetxea musikariek; sarrera 6 euroan ipini dute. Zapatuan ere emanaldi bi izango dira: 20:30ean hasiko da Idurre Azkue dantzariak eta Joseba Irazoki musikariak osatu duten *Dantza gurea* lana, hori ikusteko sa-

rreren prezioa 6 euroan dago. Ostean, 22:00etan, Joseba B. Lenoir Gang-en kontzertuaz goatzeko aukera izango dute 8 euroko sarrera erosten dutenek. Eta Maratila itxiko du domekan, 19:00etan, Txalo Produksioak-ek taularatuko duen *Heroiak* antzerki-lanak; sarrera: 10 euro.

Kultur Maratilarako bonua

Hiruzpalau ikuskizun edo denak ikusteko asmoa daukanak bonua ere izango du aukeran: sei ikuskizunetarako sarrera, 30 euroan, eta, gainera, Kultur Maratilaren kit bat opari. ◀

Irakurzaleentzako zita bi, Sopelan eta Getxon

Hitzordu bana prest daukate Euskarazko Irakurle Klubak Sopelan eta Uribe Kostako Irakurzaleen Txokoak (UKITX) Algortan. Batetik, hilaren 18an, eguena, batuko dira Sopelan, 19:00etan, Mari Jose Kerejeta Sarriegik euskaratutako Wladimir Kaminer (Mosku, 1967) idazlearen *Errusiar diskoteka* liburuaz berba egiteko. Berlin ekialdean juduak hartzen dituztela jakitean, Errusiatik hara abiatzen den gazte baten testigantzak ditu ardatz narrazio laburrez osatutako lan horrek. Bestetik, ohi den legez, hileko azken eguaztenean ipini du zita UKITXek. Iñaki Irasizabal idazleagaz *Mendaroko txokolatea* bere lanaz

Ekitaldiak

Otsailak 18, eguena

19:00 *Errusiar diskoteka* (Wladimir Kaminer) liburuaz berba egingo dute, Kurtzio kultur etxean. Doan.

Otsailak 24, eguaztena

19:30 *Mendaroko txokolatea* lanaz egingo dute berba Iñaki Irasizabal idazleagaz, Villamonte kultur etxean. Doan

jardungo dute Algortan. Eta adi! Hurrengo saioa aurreratu egin dute-eta: martxoaren 16an, 19:30ean, Aldai Patronatuan egongo da Yolanda Arrieta *Argiaren alaba* liburuaz hitz egiteko. ◀

Lemoizen ikusgai dago ArgIHlzkiak erakusketa, otsailaren 28ra arte; astegunetan, arrastiz

Armintzako kultur etxean, astegunetan, 16:30-20:00 ordutegian, ikusi eta irakurri ahal izango dira ArgIHlzkiak lehiaketako 10 argazkiak, eta horietan oinarritutako euskarazko 20 testu laburrak. Egizu elkarteak eta Hirukak antolatzen duten ArgIHlzkiak lehiaketaren erakusketa ibiltaria bere ibilaldia amaitzear da: Leioan, Getxon, Berangon, Urdulizen eta Plentzian egon ostean, orain Lemoizen egingo du azken aurreko geldialdia, eta Sopela izango du azken geltokia martxoan (ekitaldi berririk zehazten ez bada). Horrez gainera, 2016ko V. ArgIHlzkiak lehiaketa ere prestatzen gabiltza, izango du berritik... ◀

Maitagarri batek iragarriko du aurtengo Leioako kaleko artisten Umore Azoka



Hegaz datorren maitagarriak iragarriko XVII. Umore Azoka, maiatzaren 19tik 22ra egingo dena. «Inoiz baino eskaera gehiago» jaso dituztela jakinarazi du Kultur Leioak. Hala, 424 eskakizunetatik (50 Euskal Herritik), daborduko aukeratu dituzte parte hartuko duten 51k (20 Euskal Herrikoak). ◀



Zientzia-pilulak

EDUARDO
SAN ANDRES ARANA
Matematika irakaslea

Izarretatik gatoz (eta ez da metafora!)

Demagun mila pertsona, bakoitzak bere aurrean puzzle bat osatuta duelarik. Puzzle bakoitzak mila pieza ditu, eta denak ezberdinak dira. Eman dezagun mila pertsona horiei eskatzen diegula bere puzzlea desegiteko. Ondoren, pieza guztiak kutxa handi batean batu, ondo nahastu eta mila bana pieza, ausaz hartuta, banatuko diogu berriro bakoitzari puzzle berri bat osa dezan. Zein probabilitate dago pertsona bati aurreko puzzle berbera egokitzeko? Oso txikia, ezbairik gabe. Zero ez, ordea.

Mundua eratzen duten elementu guztiak, izaki bizidunak barne, puzzle pieza txikiz osatuta daude, atomoak deritzenak. Hortaz, pertsona bat, adibidez, trilioika piezaz osaturiko puzzle bat dela esan daiteke. Atomoak ez daude bizirik (ez nahastu zelulekin!), baina, hala ere, konfigurazio jakin batean antolatzen direnean, sortzen den puzzlea biziaren apaingarriarekin agertzen zaigu, naturaren misterio handienetariko bat izanik. Pertsona bat hiltzen denean bere gorputza desegiten da eta pieza guztiak sakabanatzen dira, batzuk haizeak daroatza, beste batzuk behi batek irensten ditu... eta denborarekin beste atomoekin berriz konbina daitezke beste puzzle bat osatzeko. Beraz, zure gorputza osatzen duen atomoen bat dinosauro baten gorputzekoa izan liteke. Eta hil eta gero zure piezak beste puzzle baten parte izango dira etorkizunean. Izan ere, atomoak ez dira sekula desegiten!

Non daude atomoen fabrikak? Gauean, oskarbi egotekotan, gora begira eta fabrikak ikusiko dituzu. Bai, zure gorputza osatzen duten piezak orain dela milioika urte sortu ziren izarretan. Izar-hautsa gara. Carl Sagan maisuaren hitzetan: «Unibertsoak bere burua ezagutzeko daukan tresna bat gara». ◀

«Askoz gehiago arriskatu dugu disko honetan»



Seikote izateari utzi dio Guda Dantza taldeak. © BAGA BIGA

Guda Dantza musika-taldeak *Labarren ertzean* izenburuko bigarren diskoa plazaratu berri du, Baga Biga diskoetxeagaz; dantzatzeko zein hausnartzeko aukera ematen du.

KEPA UGARTE MARTIARENA ▶

Algortar bik eta beste lau leioaztarrek osatzen zuten orain arte Guda Dantza ska taldea. Grabazio-lanetan Victor Ortega balmasedarra batu zaie; teklatura jo eta koruak egingo ditu.

Zer alde dago 2014ko *Lainoak eta oskarbiak* diskoa eta berriaren artean?

Gure lehenengo diskoan mestizajerantz jo genuen; orain purutasuna bilatu dugu. Ska estilokoak dira abesti gehienak; funk eta soul abesti bana

“Anbizio handiko lana da bigarren hau; estilo aldaketa handia izan da. Urtebetean egin dugu”

dago, baita rock estiloko bi ere. Nahasketa hori alde batera utzita, estilo bakoitzaren ezaugarriak bilatzen ahalegindu gara.

Euriria estudioetara zortzigaz sartu, eta 11 kantugaz atera zarete.

Ibon Larruzea ezin hobeto portatu da gurekin. Sartu bezain laster, maketa grabatzea proposatu zigun, kantak zelan zeuden ikusteko asmoz; proiektua-

ri behin betiko forma eman zion Ibonnek, diskoa biribilduz. Gainera, berak Italian konposatutako pieza bat oparitu zigun, «Live ilusion» izenburukoa. Guk abestia laburtu eta errepika aldatu genuen; diskoko «Hegan» kanta da Larruzeak oparitutakoa.

Diskoa grabatzeko kolaborazioak eduki dituzue, ezta?

Bai. Diskoaren grabazioan Ibon Larruzeak teklaturak eta koruak egin ditu; Aratz Akatzek tronboia jo du; eta Sergio Patxukok «Paradisu faltsuan» abestian kantatu du. Hori gutxi balitz bezala, Victor Ortega gure ekoizpen laguntzaileak koruak ere egin ditu. Ortega taldean sartuko dugu orain, teklaturajole, eta koruak egiteko.

Lan berriak zati bi dauzka.

«Iragana» izenburuko abesti instrumentalak bereizten ditu zati biak; aurreko kantak dantzatzekoak dira, eta ondorengoek egunerokoan pairatzen ditugun egoerak islatzen dituzte.

Diskoaren izenburuak zerikusia dauka taldeak hartu duen bideagaz?

Horixe bera da adierazi nahi genuena: anbizio handiko diskoa dela, urtebetean konposatu dugula, estilo-aldaketa handia izan dela. Finean, arriskatu egin dugula, eta, hortaz, «labarren ertzean» gabiltzala. ◀

Umorez jantzitako polizia-antzezlan eskainiko du Glu Glu taldeak, Astrabuduan

Glu Glu taldeak *La Boda de Betty Blue* izenburuko antzezlan eskainiko du zapatu honetan, otsailak 20, Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean. Emanaldia 20:00etan izango da, gaztelaniaz; sarrerak 3 euroan daude salgai. Galder Perezek zuzendutako obran susmoz beteriko heriotza bat, hildakoaren alabaren eta politikari ustel baten arteko ezkontza, eta muturrak sartzen dabilen detektibea agertzen zaizkigu. Hala ere, amaierara arte ikusleek ez dute igarriko hiltzailea zein den; ezta diru eta amodio konfuetan nor irabaziko duen ere. Ostera, denbora guztian mantentzen da umore-kutsua antzezlanean. ◀

Bapiruke egitasmorako begirale eta zuzendari bila dabil Bizarra Lepoan euskara elkarteak

Bapiruke egitasmoko begiraleen eta zuzendarien lan-poltsa berri-tu gura du aurrean Getxoko Bizarra Lepoan euskara-elkarteak. Iragarkia Beharsarea lana eskaini eta eskatzeko webgunean ipini dute; bertan sar daiteke curriculum, edo zuzenean eurei bidali info@bizarralepoan.org helbidera. Ondoko hau eskatzen dute: batetik, adin nagusikoa izatea; bestetik, begirale edo zuzendariaren titulua edukitzea, edo gutxienez 3 urtez jarraian elkarte bateko udalekuetan lanean ibili izana. Amaitzeko, ezinbestekotzat jo dute euskara-maila oso ona edukitzea. ◀

Joaquin Sabinaren abestirik ezagunenak entzungai egongo dira Berango Antzokian

Otsailaren 27an, zapatua, *Una mirada a Sabina* ikuskizunaz gozatzeko aukera egongo da Berango Antzokian, Los Otros talde bilbotarragaz; Joaquin Sabina abeslari madrildarraren 19 abesti kantatuko dituzte. Emanaldia 19:00etan hasiko da; sarrerak 3 euroan egongo dira. Los Otros 2011ko hasieran sortu zuten Patxi Almenarak eta Alejandro Adunak; handik gutxira batu zitzairen Javier Jodar taldeko abeslaria, «Jodarren eta Sabinaren ahotsak antzekoak direnez gero», Berangon eskainiko duten ikuskizuna prestatzen hasi ziren; madrildarraren kanta ezagunenak abesten dituzte. ◀

«Ikusleengana heltzen eta horiek hunkitzen saiatzen gara beti»

Natalia Monge Gomez algortarra da Organik dantza- eta antzerki-konpainiaren zuzendaria eta koreografoa; dantzan ere egiten du batzuetan. 2002an sortu zuen, Amsterdamen ikasketak egin ostean. Organik taldeak otsailaren 12an aurkeztu zuen lehenengo aldiz *Irrintzi* izenburuko bere azken lanaren aretoko bertsioa, Sopelako Kurtzio kultur etxean; ikuskizuna Baionako kaleetan estreinatu zuten iazko irailaren 26an, Dantza Hirian jaialdiaren barruan.



KEPA UGARTE MARTIARENA

Nondik datorkizu dantzarako grina?

Betidanik izan dut oso harreman estua nire gorputzarekin. Txikitatik ibili naiz gimnasia txapelketetan; oso serio hartzen nuen. Izan ere, adierazteko modutzat hartu izan dut beti gimnasia; beste eskoletara joan arren, entrenamenduak ziren garrantzitsuena niretzat.

Horrenbestez, argi zeneukan. Zure ikasketak horretara bideratu zenituen.

Hala da. Garaia heldu zitzaidanean Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Hezkuntza Fisikorako Euskal Institutuan ikasten hasi nintzen; bertan, beste esparru eta kirol batzuk ezagutu nituen. Dantza egiten ere hasi nintzen unibertsitate-garaian; inprobisazioaren munduaz jabetu nintzen orduan.

«Nahi duzun bezala mugi zaitez» esan zidaten lehenengo aldian «hori zelan egiten da?» pentsatu nuen; izan ere, gimnasia zein kirol-munduan dena dago nahiko estandarizatuta. Inprobisazioa ezagutzea sekulakoa izan zen niretzat. Ordutik aurrera, ikastaroak egiten hasi nintzen, eta, denbora gutxira, txiki geratu zitzaidan Bilbo!

Herbehereetaraino joan zinen koreografia-ikasketak egin ahal izateko.

Bai. Amsterdameko *School for New Dance Development* zentroan audizioa egin nuen, eta hartu egin ninduten; 1998tik 2001era bitartean egon nintzen bertan Konposizio Koreografiko ikasketak egiten.

Gimnasta nintzenean, neuk aukeratzen nuen musika, eta prestatzen nituen mugimenduak. Horrek ez du esan nahi entrenatzailerik ez neukanik, baina sortzeko grina neukan ordurako. Orain, batzuetan dantzariaren rola bete arren, nik egiten dut koreografia. Ikuspuntu zabalagoa izatea eskatzen du horrek.

Baina haraino joan behar izatea... Gertuago ez dago horiek egiteko aukerarik?

Oso gai delikatu da aipatzen duzuna... 2015eko irailan martxan ipini zen Dantzerti izeneko Arte Dra-

“Dantzertin 25 ikaslerentzako lekua zegoen, eta 9 baino ez dituzte onartu. Horrek hainbat zalantza sorrarazten dit”

matiko eta Dantza Goi Mailako Eskola; arte eszenikoaren gradua egiteko asmoa daukate. Kontua da 25 ikaslerentzako lekua zegoela, eta 9 bakarrik hartu dituztela. Horrek hainbat zalantza sorrarazten dit; esaterako, hain beharrezkoa baldin bazen, zelan ez da bete? Ez da gai samurra; dantza-munduan sartzeko zein ibilbide dauden begiratzea baino ez dago. Dantza klasikoaren mundutik datozenentzat beti

egon da ibilbide zehatz bat; Bizkai aldean badago hamaika ballet-eskola. Baina dantza-garaikidearen munduan, ez dago non ikasi, ezta azterketarik ere.

Behar hori asetzeko sortu zen Dantzerti. Hala ere, zabaldu dutenean, ez ditu espektatibak bete. Entzun dudanez, aurkeztutako jendeak ez zeukan behar besteko prestakuntzarik... 18 urteko dantza-ikasle bati bakarkako pieza bat eskatzea ez dakit nik neurrizkoa denik. Ez dut esan nahi adin horrekin ezin denik egin, baina baldintza asko beharrezkoak dira; besteak beste, lekua behar du hori prestatzeko.

Egia da ni ez nintzela joan Amsterdamera dantzari izateko asmoz; koreografia ikastea zen nire helburua. Adibididetzat edo, han askoz errazagoa zen lan bat zuzentzea, hemen baino; dantzariak, behar tekniko guztiak eta espazioa han baneuzkan. Ez dut esango hemen topa ezin daitezkeenik, baina askoz zailagoa da.

Baina, Dantzertiko irakasle izateko aurkeztu zinen...

EHUn lan egiten dut, baina ez daukat lanpostu finkorik. Etorkizunean bertan lanik izango dudanez, Dantzertiko irakasle izateko aurkeztu nintzen. Hala ere, ez ninduten onartu. Berdin zitzairen Heziketa Fisikoan lizentziaduna, Konposizio Koreografikoan diplomaduna eta doktoretza bat izatea; kontserbatorioko tituluren bat behar nuen bertan eskolak emateko. Hala, iaz Madrilen musika-eskola bateko ikasketak amaitu zituen 18 urteko pertsona batek aukera gehiago dauzka nik baino Dantzerti-



Biografia

Natalia Monge 1972an jaio zen. Gimnasia erritmikoko Espainiako entrenatzaile titulua dauka, eta Heziketa Fisikoan lizentziaduna da. Konposizio Koreografikoan graduatu zen Amsterdameko *School for New Dance Development* zentroan (1998-2001). Gainera, *Circus Wonder* konpainiagaz dantzan ibili zen Herbehereetan, Belgikan eta Frantzian. Koreografo Gazteen IV. Mostran saritu zuten *d'k'me hablas...?* lanagaz. Hastapenetan, *360 grados* bakarkako lana (Amsterdam, Bilbo, Portugal) eta *Summer camp* (Amsterdam) konposatu zituen. Bestalde, Alemaniako hainbat dantza-piezatan parte hartu du, baita inprobisazioetan eta ikus-entzunezko lanetan ere. Autor Fundazioaren beka jaso zuen (Berlin, 2002). Sortzaile-lana eta irakaskuntza uztartzen ditu; institutuetan eta Euskal Herriko Unibertsitatean ematen ditu eskolak. Arte Ederren Fakultateko doktore da, *La danza de las emociones de Alain Platel* izenburuko tesiari esker. Organik taldea 2002an sortu zuen Mongek, beste batzuekatz batera; orduz geroztik zuzentzen du. Hastapenetan, *Tellagorri* eta *Tellagorri BI* kale-ikuskizunak sortu zituen (Algortako Saninazioak, 2002-2003). Ondoren etorri ziren *ES3IN* (2004), *+ES3* (2007), *Malditas* (2008), *Aharia* (2012), *Txapeldun* (2014) eta *Irrintzi* (2015). Areto barrurako, berriz, *Tu o yo* (2003), *Serie Impros* (2006), *Lilas* (2008), *Maniatic@s* (2010) eta *In corpore sano* (2012) sortu zituen algortarrak.

ko irakasle izateko; eszenan inolako esperientziarik eduki ez arren, eskolak eman ditzake. Gure lanbidean zalaparta handia sortu du horrek.

Zelan hartu zenuen 2014an Aixe Getxo! saria jaso izana, Arte Eszenikoen alorrean?

Ezuste handia izan zen; izan ere, guk egiten duguna ez da kontu batere ezaguna, nahiz eta urte mordoan eraman dantza abstraktua lantzen. Noizbait zabaltzen badute, Getxo Antzoki berri horretan erresidentzia artistikoa izatea da nire ametsetako bat, baina hori aipatzean, entzungor egiten dute udal agintariak. Bada, ez da udalerrian dantza-konpainia asko daukagulako izango! Ezetzak baino ez ditugu jasotzen, gehienetan. Nerabeekin euskaraz egin nahi genuen proiektu bat aurkeztera joan nintzaian. eta, beti bezala, dirurik ez dagoela esan zidaten.

Normaltasunez ikusten dut jendeak askotan ez ulertzea egiten dugun dantza-estiloa, baldin eta herrian, kultur arloan, hezkuntzan... ez badugu horren gaineko informaziorik jasotzen.

Organik dantza-taldearen zuzendaria zara. Zelan sortu zen konpainia sortzeko ideia?

Amsterdametik heldu bezain pronto, diru-laguntzak eskatzen hasi nintzen, produkzioen bat sortzeko asmoz. Horretarako, bi aukera daukazazu: autonomia izan edo dantza-taldea sortu. Organik 2002an sortu genuen, baina gehienbat 2007tik dabil lanak maila askoz profesionalago batean egiten.

Zer ezaugarri dauka Organikek?

Zalantzarik gabe, mugimendua da Organiken oinarria; baina, horrekin batera, ni beti saiatzen naiz ikusleengana heltzen, horiek hunkitzen... Emozioak lantzeko niri interesatzen zaidan gai batetik abiatzen naiz, eta taldearekin partekatzen dut; interesgarriena da zelan ateratzen diren hasierako ideia horrekin zerikusia daukaten beste zertzelada batzuk.

Freskotasuna da beste ezaugarrietako bat. Jakin badakit zaila izaten dela dantza-garaikidean aditua ez den batentzat plazaratzen ditugun produkzioen

“ Ezuste handia hartu nuen, Aixe Getxo! saria irabaztean; izan ere, gehienetan, ezezkoak baino ez ditugu jasotzen ”

haria hartzea hasiera batetik; baina, heltzen da momentu bat non ikusle guztiengana heltzen garen. Umorearen bitartez lortzen dugu; askotan testuari lotuta doa umorea.

Zer aurkituko du *Irrintzi* ikustera doanak?

Alde batetik, azken bolada honetan interesatuta egon naiz euskal kulturarekin zerikusia daukaten

gaiekin: herri-kirolak ziren *Txapeldun* (2014) obraren abiapuntua; horren aurretik egin genuen *Aharia* (2012). *Irrintzi* ikuskizunari dagokionez, oihu horiek zeukaten komunikatzeko gaitasunak liluratu ninduen. Izan ere, irrintziak ez ziren gaur ezagutzen dugun moduan bakarrik erabiltzen, alaitasuna adierazteko. Eskualdean barrena ikertzen ibili ostean, jakin izan dugu, besteak beste, larritasuna adierazteko irrintziak zeudela; esaterako, erditzeko behi batek arazoak zituela adierazteko. Gaur egun, jai-giroan, poztasuna adierazteko horiek baino ez ditugu eza gutzen. Hori dena gogoan izanda, irrintziak entzuten ari denarengan sortzen duen alaitasuna da gehien gustatzen zaidana.

Esan daiteke irrintziaren irakurketa-garaikide bat egin duzuela?

Bai. Alde batetik, musikaren bitartez landu dugu; eta bestetik, gorputzarekin. Begiak itxi eta irrintzia botatzen dudanean, emakume zaharra etortzen zait burura; Helena Golab eta biok adineko andreak bagina bezala agertzen gara obraren hasieran. Kontuak horrela, mugimenduen bitartez ere irudikatzen dugu rol hori; bibrazio txikien bitartez, alegia. Obraren ataletako batzuk oso emozionalak dira: oso astiro eta tentsio handia islatuz mugitzen hasten gara; musikak ere laguntzen du sentsazio hori sortzen. Baina konposizioa modu oso abstraktuan hasi arren, pixkanaka sentimenduak azaleratzen dira. Irrintzien bidezko elkarriketa bat egiten amaitzen dugu. ◀



Denera, 240 gaztetxok parte hartu ahal izango dute futbol-campusean. © IÑAKI SAEZ CAMPUSA

Iñaki Saez campusa prest

Martxoaren 18ra arte zabalik dago Aste Santuko Iñaki Saez futbol-campuserako izen-ematea. Leioako Sarriena instalazioek atezainen campus bat ere hartuko dute.

Aste Santuan, Iñaki Saez futbol-campusa egingo da Sarriena futbol-instalazioetan. Leioako Kirol Elkartek zabaldu duenez, izen-ematea zabalik dago martxoaren 18ra arte. Hala ere, txanda bakoitzean gehienez jota, 120 jokalaririk onartuko dituzte, eta, beraz, komeni da ahalik eta lasterren inskripzioa egitea. Lagun Artea futbol-eskolako jokalariek prezio bereziak izan-

go dituzte (60 euro lehenengo txanda; 90, bigarrena; eta 150, biak), Leioan errolatutako gaztetxoek edo aurretik campusean ibilitakoek, eta, batez ere, Leioatik kanpo errolatutakoek gehiago ordaindu beharko dute, gehienez jota 220 euro. Eskaren arabera, campusak autobus-zerbitzua jar dezake.

Leioako klubak 2008tik antolatzen du futboleko hobetzeko campusa, eta Iñaki Saez Athleticen jokalaririk eta en-

trenatzaile ohiaren laguntza izan du. Aurtun, 2002 eta 2011 bitartean jaio-tako neska-mutilek parte hartu ahal izango dute, beti ere «futbolari gisa euren gaitasuna hobetu eta oporren amaiera futbolagaz lotutako formakuntza eta jardura ludikoen bidez gozatu gura badute», Javier Landeta buru duen klubak zabaldu duenez.

Ohi den legez, txikien formakuntzaz Sarrienako prestatzaileak arduratuko dira. Eta ohikoa da Athleticen jokalariek bisitaren bat egitea.

Ume eta gaztetxoak txanda bitan banatuko dira: lehenengoa martxoaren 21etik 23ra izango da, eta bi-

garrena, martxoaren 29tik apirilaren 1era. Campusa goizez bakarrik izango da, honako ordutegiagaz: goizeko 08:00etatik 09:15era, neska-mutilen harrera eta jagotea, jarduerak hasi bitartean; ondoren, entrenamenduak, hamaiketakoak eta jolasak; eta 13:45etik 14:15era, jokalarien irteera.

Bestalde, lehenengo aldiz, Leioako Kirol Elkartek Vicente Biurrun atezain-campusa ere antolatuko du Aste Santuan. Athletic, Real eta Osasunaren atezain ohiaren campus horrek bat egingo du Iñaki Saezen omenezkoaren datakaz eta orduakaz. ◀

izen-ematea: 675 533 528 / campusleioa@yahoo.es

Eskualdeko 8 muslari Bizkaiko finalera doaz

Zapatuan, otsailak 20, jokatu-ko da Euskal Herriko VIII. Mus Txapelketaren Bizkaiko lurralde-finala, Zornotzako Far Far tabernan (Luis Urrengoetxea etorbidea), 10:00etatik aurrera. Bertan, Uribe Kostakoak izango dira 26 bikotetik lau: Gorlizko Asier Munillos eta Sonia Schmending, Itzabaltzeta/Romoko Fernando Urriolabeitia eta Klaudio Flores, Lemoizko Jagoba eta Jon, eta Algortako Jose Antonio Goikoetxea eta Jose Antonio Etxeandia. Lurraldefasea gaindituz gero, Uribe Kostako muslariek martxoaren 5ean izango lukete Euskal Herriko finala, Zuberoako Urdiñarbe herrian jokatu-ko dena. ◀



© EH MUS FEDERAZIOA



© EH MUS FEDERAZIOA

Leioako Mendi Taldeko ikastaro berriak, martxan

Leioa Mendi Taldeak hiru ikastaro prestatu ditu mendizale-federazioagaz batera, bazkideentzat zein federatuentzat. Lehenengoa, alpinismoaren hastapenen ingurukoa izango da, otsailaren 27an eta 28an; prezioa, 40 euro. Bigarrena, haitzetan eskalada egiteko hastapeneko ikastaroa izango da, maiatzaren 21ean eta 22an; 50 euroan. Azkena, mendian orientatzeko mintegia izango da, irailaren 25ean eta 26an; 25 euro ordaindu beharko dituzte interesa dutenek. Inskripzioak ohiko kontaktu-bidez eta elkartearen egoitzan egin daitezke astelehenetan edo ostegunetan, 19:00etatik 21:00etara. ◀

info+: info@leioamenditaldea.com / 689 721 917



© UGARI SUB

Ugari Suben ekintzak, abian

Eguenean, Gorlizko Ugari Sub urpeko arrantza-elkarteen egoitzan (Eloisa Artaza, 1), kirol-medikuntzaren gaineko berbaldi bat antolatuko dute. Luis Fiz elkartearen bazkide eta doktore otorrinolaringologoak urpekaritzaz eta belarrien osasunaz jardungo du, 19:00etatik aurrera. Zapatuan, berriz, arrantza-irteera egingo dute, eguraldia ona bada. ◀

Sopelako Duatloia hastear dago

Datorren zapatuan, otsailaren 20an, duatloiagaz hitzordua izango du Sopelak. Bertan izango da 2016ko Euskal Herriko duatloi-zirkuituaren bigarren proba. 11. edizioa izango da aurtengoa, esprint-distantzian egingo da, eta Sopelako Hirubi triatloi-taldeak eta Euskadiko Triatloi Federazioak antolatuko dute.

Irteera, helmuga eta boxak, Sopelako udaletxearen ondoan egongo dira, Antonio Aretxabaleta plazan. Proba 16:15ean hasiko dute, emakumezkoen lasterketagaz. Handik ordu laurdenera irtengo dira gizonezkoak.

Emakumeek zein gizonek 5,2 kilometro egin beharko dituzte korrikan,

19,2 bizikletaz, eta, amaitzeko, helmugako marrara heldu aurretik, azken 2,5 kilometroko lasterketari oinez aurre egin beharko diote.

Zirkuituaren ezaugarriak

Oinezko saio bien ibilbide osoa herriko kaleetatik igaroko da. Lehenengo atalean, parte-hartzaileek itzuli bi eman beharko dizkiote zirkuituari, eta bigarrenean, helmugara iritsi baino lehenago, beste itzuli bat eman beharko diote ibilbide berari.

Bizikleta-saioan, Uribe Kostako zenbait herritatik pasatuko dira txirrindulariak: Sopelatik irten, eta Barrika, Plentzia eta Urduliz zeharkatu ostean, Sopelara itzuliko dira. ◀



Kadeteek zein hortik gorako kategorietakoek parte har dezakete Sopelako Duatloian. © HIRUBI



Sabin Merinok Athleticcegaz kontratu berria sinatu zuen martitzenean. Aurrelari urduliztarra 2019ko ekainaren 30era arte izango da zuri-gorri, gutxienez. Beste talderen batek fitxatu gura izango balu, 30 milioi euro ordaindu beharko litzuke. «Poz-pozik» dagoela dio jokalaria. © ATHLETIC

Txakur-krosa egingo dute Gorlizen domeka honetan

Domekan, hilak 21, Gorlizen jokatuko da Bizkaiko Txakurkros Txapelketaren IV. edizioa; Euskadiko Txakurkros Ligaren zortzigarren eta azken aurreko proba ere bada. Ekimena Gorlizko Udalak antolatu du, Neguko Kirolen Bizkaiko Federazioaren laguntzagaz. Lasterketa eguerdian hasiko da, kiroldegian, baina albaaitarritza-kontrolak 09:30etik aurrera egingo dituzte. Proban, kirolariak korrika egin beharko dute, euren txakurrak arnesagaz eta soka elastikoagaz gerrira lotuta dituzten bitartean. Zirkuitua sei kilometrokoa izango da. Aurretiazko izen-emateak egueneko 13:00ak



© NURIA G.D.-BIZKAIKO TXAKURKROS LIGA

arte egin daitezke, federazioaren webgunean. Federatuek 12 euro ordaindu beharko dituzte, eta besteek, 15. Probaren egunean, izena emateko aukera izango da 09:30etatik 11:00etara, kiroldegian, 20 euro ordainduta. ◀

izen-ematea: Fvdi.org/eu



DACIA DUSTER

10.800€-tik aurrera*



 Dacia España  Dacia ESP

*Irudiko modelo: Duster Laureate TCE 92 kW (125 ZP) GPSP: 15.850€

5 URTEKO BERMEA

www.dacia.es / 915 065 359 | Ikus ezazu zure Renault-Dacia kontzesionarioan.

Lasai, zeuk ere gida dezakezu Dacia Duster bat.

*PSPa Penintsularako eta Balearretarako da, partikular edo autonomo batek Duster Base Berria 1.6 84 kW (115 ZP) erosteko. Irudiko modelo: Dacia Duster Laureate TCE 92 kW (125 ZP) 15.850 € zergak eta deskontua barne. Partikular eta autonomoeniztat da aplikagarria Dacia Box bidez finantzatzuz gero RCI Banque SA Sucursal en España-rekin. Gutxienezko epea: 24 hilabete. Finantzatu beharreko gutxienezko kopurua: 4.000 €. 5 urteko bermea Dacia gama guztiarentzat, lehen bi urteetan kilometro-mugarik gabeko, eta hirugarren urtean bermea amaitu egingo da 100.000 km gaindituz gero. Hirugarren urteetik aurrera, Dacia Serenité-ren kontratuko berme-luzapena amaitu egingo da baldintza hauetako bat betetzen deneari: 2 urte gehigarri edo guztira 80.000 km, bietan lehenengo gertatzen dena (ikus berme-luzapenaren kontratuaren baldintzak). RECSA eskaintako deskontua. Eskaintzak 2016/02/01etik 2016/02/29ra arte iraungo du. Ez da bateragarria beste finantza-ekintza batzuekin.

BILBO BERRI Jon Arrospide, 20. Tel. 94 448 39 00. Deustu www.bilboberri.com

LEIOA BERRI Iparragirre Hiribidea, 94. Tel. 94 480 42 90. Leioa www.renault.es/concesion/leioaberri

Dacia gomendatzen du 

Abadiñoarrak, irabazle Erandion



Bizkaiko goma gaineko sokatiraren erakusketa bilakatu zen Erandioko saioa. © MURUETA S. T.

Abadiño sokatira-taldeko zortzikoteak irabazi zuen Eus-kadiko Goma Gaineko Sokatira Txapelketa, 560 kiloko kategorian, pasa den zapatuan, Erandion. Altagako kiroldegian jokatu-tako proban, talde bizkaitar denak pasatu ziren finalerdietara. Bertan, Abadiño, Arrigorriagako Sokarri eta Muruetako sokatiralariak Ñapurak taldea izan zuten bidelagun, pasa den aste-akabuan legez Idiazabalen. Orduan, 600 kiloko kategoriaren txapela izan zuten jokoan, eta, azkenean, lapurtarrek jantzi zuten.

Erandion, oster, lapurtarrek finalerdian kale egin zuten, eta final bizkaitarrari bidea zabaldu zioten. Aba-

diño-Sokarri dema estua izan zen, baina azkenean, Durangaldeko zortzikotea nagusitu zitzaion Hego Uri-bekoari. Hirugarren postura Murueta sartu zen, eta lapurtarrak podiumetik kanpo geratu ziren.

Munduko txapelketa

Hala, esan daiteke, eguen honetan hasiko den munduko txapelketarako entrenamendutzat izan zutela Euskal Herriko txapelketa lau taldeek. Her-behereetako Volendam hirian egin-go den klubaren eta selekzioaren arteko txapelketa 560 kiloko probagaz abiatuko dute. Erandion irabazleak izandakoek, abadiñoarrek, 17 tiratzaile eroango dituzte. ◀

Baloi baterako irudi irabazleak, 500 euro

Urtero doan banatzen dituen eskolako baloiak diseinatzeko lehiaketa abiarazi du Bizkaiko Saskibaloia Federazioa (BSF). Urtero, 3.000 baloi baino gehiago eman ohi ditu, eta aurten zuk zeuk hura diseinatzeko aukera izango duzu. Diseinu berezia, Federazioaren 75. urtebetetzea ospatzeko asmoz. BSFk lehiaketa horretan parte hartzera gonbidatu du diseinu, marrazketa, edo artearekiko zaletasuna duen jende oro. Irabazleak 500 euroko saria jasoko du. Federazioaren aburuz, «oso kontu erraza da parte hartzea». Otsailaren 28ra arte zabalik egongo epea proposamenak

aurkezteko; pertsona bakoitzak, bi gehienez. Lanek kirol-erakundearen webgunean ipinitako irizpideak bete beharko dituzte. Federazioaren bulegoan aurkeztu beharko dituzte lanak parte-hartzaileek, Bilboko Miribilla auzoko Kirol Etxean, hain zuzen ere. Hala ere, posta arruntez ere bidaltzeko aukera badago. Kasu horretan, ez da izen edo goibururik ipini behar ontziaren kanpoaldean. Gero, diseinu- eta komunikazio-arloko hainbat profesionalak eta Federazioko zenbait kidek erabakiko dute lehiaketaren eta agindutako 500 euroen irabazlea nor izango den. ◀

info+: Bizkaibasket.com

Seguros Bilbaok Punta Galea bereganatu du

Getxoko Punta Galea txirrindularitza-elkartek 40 urteko ibilaldi luzea dauka. Aurten, Seguros Bilbao enpresagaz akordioa itxi, eta bere babesean geratuko da, bere eskola aseguru-etxeko txirrindularitza-taldearen barruan egokituz. Horrela jakinarazi zuen pasa den astelehenean Iñigo Garay Seguros Bilbaoko marketin-zuzendariak, Bilboko Itsas Museoan egindako aurkezpenean.

Garayren berbetan, Punta Galeagaz «lortuko dugu txirrindulariek guzaz euren formazio-etapa denak bete ahal izatea, oinarritik profesionalismoaren aurreko etapara». Seguros Bil-

bao taldeak 24 txirrindulari izango ditu elite eta 23 urte azpiko kategorietan: Raul Bosch, Noel Gil, Jokin Etxabe, Beñat Etxabe, Oscar Cabedo, Alain Ramirez, Oscar Pelegri, Bernat Font, Cristian Torres, Enrique Serrato, Eneko Corrales, Adrian Sainz, Jeison Cortes, Markel De la Fuente, Pere Casasnovas, Jaime Sureda, Tomas Coldecarrera, Gabriel Pons, Eukeni Rotae-txe, Asier Perez, Arkaitz Agirre, David Casado, Nicolas Saez eta Daniel Avelaneda. Haietako erdiak berriak dira.

Seguros Bilbaok Andraka txirrindularitza-elkartearen lizentzia erabiltzen du, baina egoitza Getxon dauka. ◀



Elkar Kirolak taldeak txirrindularitza-eskolako txikienak batu zituen pasa den aste-akabuan. Barikuan gurasoakaz denboraldiaren hasierako batzarra Berangoeta kultur etxean izateaz gainera, zapatuan lehenengo entrenamendua egin zuten, Berangon ere, trebetasuna hobetzeko. Betiko lagunak agurtu, berriak ezagutu, eta mendiko bizikletan ibiltzeko ere baliatu zuten goiz eguzkitsua. © ELKAR KIROLAK



Errusiar bat, Baque-Camposen

Alexey Ryabkin txirrindulari errusiarra Baque-Camposen mailora jantzi du. Ryabkin hilaren 9an batu zen Berango, Erandio eta Leioa-ko 23 urte azpiko taldera. Errusiarra aste-akabu honetan estreinatu da taldekideakaz Ipar Euskal Herrian, Essor euskal txirrindularitza-taldeak antolatu duen Essoren Bost Egune-tako lehenengo etapari. ◀

Lehiaketa. Non da?

Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu lehiaketa-atal honetako protagonista. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?



Medested saio bat,

aurpegi-tratamendua:

azala tinkatu eta finkatzeko, zahartzearen ondorioei aurre egiteko... Urdulizko Kumara zentroaren ekimenez.

Otsailaren 23a baino lehenago, helarazi erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: hiruka@hiruka.eus edo 944 911 337

Zorion agurrak **5€**

Urtebetetze, ezkontza zein jaiotza...

Bidali zeurea!

publi@hiruka.eus
94 491 13 37



AINARA
ALGORTA
Familiaren partez

Zorionak Ainarara!!! Etxekoek egun ederra opa dizugu txikitxu, eguna alaitzen gaituen poztasuna zara. Asko maite zaitugu! muuaaaaa!!!



ZUBEROA
ROMO
Martikoenatarron partez

Uribe Kostako sorgin alaitsuen, zorionak zure urtebetetzean! Jarraitu bizitzaz gozatzen eta gozarazten! Zorte ona beti lagun izan dezazula! Gura beste mosu gu guztion partez!



AINARA
ALGORTA
Portu Zaharreko auzokoen partez

Otsailaren 22an Portu Zaharreko irribarrerik ederrenaren urtebetetzea izango da; zorionak, guapa! Musu potolo bat, muuuuuatx!

Sudokua

3	5		4					2
		1				9		
	4					5		
				8				6
					2			8
6				1				3
2		4	8	9				
		8		7		6	2	
5	6	7						

Gogoan hartu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.

Soluzioa

6	4	8	1	3	2	7	9	5
1	2	9	7	5	8	3	6	4
5	7	3	6	9	4	8	1	2
3	6	7	5	1	7	2	8	9
8	5	7	2	4	6	3	9	1
9	1	2	3	8	6	5	7	4
7	3	5	6	2	1	9	4	8
4	9	6	8	5	3	1	2	7
2	8	1	7	9	4	6	5	3

Horoskopoa



Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Zure logela txukun eta artez ordenatu ezean, laster mapa bat beharko duzu oheraino bizirik heltzeko. Daborduko eskuetatik ihes egin dizu kontuak!



Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Esan zizuten ganora handiagoz ibili ezean ez zenuela ezer lortuko, baina ahoa bete hortz utzi dituzu guztiak.



Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Lagunik onena topatu gura baduzu, bilatu txakur- rren bat, katuren bat edo beste abereren bat. Hanka biko lagunek egia esango dizute.



Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Egunotan, norbaiten antza duzu janzkera horregaz. Baina, zer demontre! Gustura bazaude, esan dezatela gura dutena!



Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Oraingoan, garai ona da maite duzunagaz berbal- di oso luzea izateko, aspaldidanik esateko zeneuz- kan kontu denak argi eta garbi utzi.



Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Aldaketak ondo daude, banan-banan, edo, anda- na bada, lantzean behin. Hala ere, ez harritu zure ingurukoek ez badute ulertzen.



Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Merkealdiak ez dituzu erabat gustuko, baina da- borduko erosketaren bat egiteko unea heldu da: arropa berria behar duzu.



Lastoa
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Elektrizitate-kontuakaz bueltaka hasiko zara. Kon- tuz ibili, ez baduzu dena hankaz gora ipini gura. En- txufearena beste historia bat da.



Iratzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Zalantza betirik zabiltza azken boladan. Zure hur- koak nekatuta daude hainbeste duda-muda, haus- narketa eta galdera-ikurragaz.



Meta
(Irailak 17-Urriak 16)

Zure ligatzeko aukerak esponentzialki hazten dira, zure elkarriketa pasarteak laburragoak diren hei- nean. Egon zaituz isilik!



Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)

Baliteke osasun-arazo arinen baten ondorioz, da- tozen egunotan lanera ezin joatea. Kontuz ibili, osatu gura baduzu, behintzat.



Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Ipurtarin ibili ostean, lasaitu egin zara azkenean. Zure ingurukoek benetan eskertuko dizute, onartu- ko ez duten arren.



Urak dakarrena

EAEko ur-masen egoera ekologikoa ikertu berri du URA erakundeak

IKER RINCON MORENO ►

Butroie ibaiako urek dute Bizkaian egoera ekologikorik txarrena; Araban eta Gipuzkoan, berriz, Zadorra, Oiartzun eta Deba ibaietako urak daude egoera horretan, hurrenez hurren. Ibaizabal ibaiaren arroan ere eremu zabalak daude «ona baino okerragoa» den egoera dutenak, «nahiz eta adar asko egoera onean egon», URA Uraren Euskal Agentziak egindako ikerketa baten arabera.

Orain dela hogeitaz urte, Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko uraren kalitatea kontrolatzeko sarea ezarri zuen; 2008az geroztik, osteraz, URAk hartu du zeregin hori. EAEko urari jarraipena egiteko sareek hainbat kontrol-gune sortu dituzte, analisi-motak areagotzeagaz eta metodologia gero eta zehatzagoak erabiltzeagaz batera. Gaur egun, kontrol espezifikoak egiten dira, eta, guztira, bost dira EAEko uraren egoera aztertzeaz arduratzen diren sareak: ibaien egoera biologikoari jarraitzeko; ibaien egoera kimikoari jarraitzeko; trantsizioko eta kostaldeko ur-masen egoerari jarraitzeko; barnealdeko hezeguneen egoerari jarraitzeko; eta lurpeko ur-masen egoerari jarraitzeko. Hala, *Ur-masen egoera ekologikoa ezagutzeko programa* delakoak EAEko azaleko urak (ibaiak, itsasadarrek, kostaldeko urak, aintzirak eta hezeguneak), lurpeko urak eta gune babes-tuetako urak aztertzen ditu. Horren helburua hauexek: ur-masen egoeraren argazki orokorra, osoa eta koherentea ematea; ur-masa bakoitzean ezarritako ingurumen-helburuak zenbateraino betetzen diren ikustea; eta Plangintza Hidrologikoak ur-masa ho-

rien ingurumena hobetzeko neurriak zenbateraino diren eraginkorrak aztertzea. Hori dela eta, programa hori EAEko ur-masen «termometrotzat» edo «estetoskopiotzat» jotzen da sarritan; alegia, urak zelan dauden hausnartzeko tresna bat da programa, uren eboluzioaren nondik norakoak ikusteko baliagarria da, edo oneranzko eboluzio hori indartzeko balizko neurri berriak aurreikusteko.

Uraren Esparru Zuzentarauaren (UEZ) definizioak erabiltzen ditu URAk ur-masen egoera zer den azaltzeko. Hala, lur-gaineko ur-masen egoeraren adierazpide orokorra zehazten dute egoera ekologi-

Butroie eta Ibaizabalgo estuarioen ur-masen egoera ekologikoa Bizkaiko okerrera dela ondorioztatu du URAk

koaren eta egoera kimikoaren balio txarrenek. Lurpeko ur-masen egoera, berriz, egoera kuantitatiboaren eta egoera kimikoaren balio txarrenek zehazten dute. Ostera, egoera ekologikoa kalkulatzeko baliatzen dituzte adierazle biologikoak (fitoplanktona, zooplanktona, hondoko eta bentoseko ornogabeak, arrainak...), adierazle fisiko-kimiko orokorrak eta adierazle «hidromorfologikoak»; halere, adierazle biologikoak izaten dira adierazgarrienak ur-masen egoera ekologikoa kalkulatzeko. Egoera kimikoak, azkenik, elementu edo konposatu toxikoengatik kutsadura-maila ezartzen du. Horrenbestez, ur-ma-

saren egoera kimikoa ona dela esan ahal izateko, IKA Ingurumen Kalitateko Arauak esaten duena bete behar du gune horrek.

Egoerak hobera egin du EAEn

Ikerketak ondorioztatu duenez, 2010etik 2014ra bitarteko bosturtekoan, EAEko lur-gaineko ur-masen egoera ekologikoak hobera egin du. Izan ere, 2014an EAEko ur-masen %52k egoera «ona» zuten; 2009an, ordea, portzentaje hori %33koa zen, ia 20 puntu baxuagoa. Hori horrela, lortutako datuak alderatu ondoren, «Europako hainbat herrialdek garatutako egoera baino askoz hobeagoa da EAEkoa», azaldu dute ikertzaileek. Guztira, EAEn 176 ur-masa zehaztuta ditu URAk; eta horietan denetan ikerketak egin ostean, egoera orokor onena kostaldeko ur-masek izan dute. Denek lortu dute egoera ekologiko eta kimiko ona izatea. Urtegiek eta ibaiak ere, orokorrean, egoera ona dute: urtegien %82k eta ibaien %66k UEZen helburuak betetzen dituzte. Lurpeko uren ikerketetan, denek izan dute egoera kuantitatibo ona; halere, ikertutako 37 ur-masetatik hiru ez dira egoera kimiko «onera» heldu: Gernikakoa, Gasteizkoa eta Miranda de Ebrokoa, hain zuzen ere. Eremu horietan, istripuzko isurketa toxikoek zein nekazaritzatik sartutako nitratoek eragin dute kutsadura hori, besteak beste. Estuarioek eta aintzirek, berriz, egoera «desegokia» dute; izan ere, datuek azaltzen dutenez, aintziren %20k eta estuarioetako ur-masen %7k baino ez dute egoera ona. Horien artean, emaitzarik txarrenak Butroie, Deba, Oiartzun eta Zadorra ibaien arroetan ageri direla jasotzen du URaren ikerketak.



Gazteluondo parkeko harri-lubetak konponduko dituzte.



Landare inbaditzaileak kentzeaz gain, ubide berria zabalduko dute Txakurzulon.



EAEko ur-masen bosturteko azterketa egin dute URAko ikerlariek. © URA



Txipio padura kontserbazio-egoera onean egon arren, landare inbaditzaileak kendu behar dituzte.

Butroe, Bizkaiko egoerarik txarrena duena

Bizkaiko arroetatik, egoera ekologiko txarrena duena Butroerena dela ondorioztatu du URAk. Ibai horren eta bere estuarioaren ur-masek ez dute «egoera ona» lortzen, «baizik eta egoera ekologiko neurritsuan gelditzen dira, edo baita eskasean ere», adierazi dutenez. Argitaratutako datuen arabera, Butroeren arroan, presio handiena Mungia aldean jazotzen da; izan ere, oro har, tarte horretan ez da «egoera ona» lortzen, «bertan isurketak daudelako oraindik ere». Dena den, horiek «konpontzeko bidean» daudela, eta inbertsio «handiak» egin dituztela azaldu du URAk.

«Ona baino okerragoa» egoera duten eremu zabalak daude Ibaizabalen arroan ere; halere, ikerketaren arabera, adar asko daude egoera ona agertu dutenak. Diotenez, ibai horren lurgaineko ur-masen erdiek egoera ona dute; beste erdiek, berriz, ez; hiru ardatz nagusietako bitan (Ibaizabal eta Nerbioi) eta estuarioan, batez ere, ez. Azken horretan, bertara zuzenean iristen diren adarrek (Asua, Gabela eta Galindo) ez dute egoera ona lortzen, eta lehenengo bien kasuan, egoera ekologikoa eskasa da. Estuarioaren barnealdean, berriz, egoera ekologikoa neurritsua da, baina ez ditu UEZen helburuak lortzen. Kanpoaldean, ordea, egoera ekologiko ona lortzen du, eta hori nabarmentzeko modukoa da dela diote, nahiz eta egoera kimikoa ona baino okerragoa den.

Butroeko estuarioa hobetzeko lanak

Butroe ibaiak, uren kalitate eskasa izateaz gainera, ibaiaren estuarioko hainbat gune egokitu beharra dauka, Plentzia aldean. Hiribildutik igarotzen

den ibaiaren zati handi bat harri-lubetez bideratuta dago, eta murre horiek, hainbat kontugatik, kontserbazio-egoera ezberdinean daude. Berbarako, Legarondo pasealekuko hormak konpondu beharreko hainbat hutsune ditu, Gazteluondo parkearen inguruan. Izan ere, ibaiko urek eta mareek egituraren betetze-materiala galtzea eragin dute. Egoera hori konpontzeko, Espainiako Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak PIMA Adapta plana martxan ipini du. Proiektu horrek beste hainbat puntu ere konpontzea aurreikusten du, berbarako: Txakurzulo padura, Gazteluondo parketik 500 metrora

Gazteluondo parkea eta Txakurzulo zein Txipio padurak egokitzeko obrak egingo dituzte datozen hilabeteotan

ibaian gora, ezker aldean. Bertan meandro zahar bat dago, XX. mendean arrain-haztegitzat erabili izan zena. Landaredia ugari dago, eta horrek uraren ebaquazioa zaildu egiten du, urak gora egiten duen sasietan. Inguru horretako ahalmen hidraulikoa murrizten du horrek, eta ibaian gora balizko uholdeak sorrazi litzake.

Azkenik, ibaian behera, Txipio paduran ere egingo dituzte lanak. Ministerioaren arabera, padura hori «nahiko ondo» kontserbatuta dago; hala ere, landare inbaditzaileak agertu dira, eta horiek kentzeko lanak abiatuko dituzte laster.

Gazteluondo parkeko murrua konpondu

Inguruan kaltetuta dauden harri-lubetak konpontzea aurreikusten du planak. Horretarako, bertako arkugainera hustuko dute, kaltetutako murrua desmuntatzeko. Ostean, harri-lubeten harriakaz berre-raikiko dute, hantxe bertan, *in situ*.

Landare inbaditzaileei, aurre egin Txakurzulon

Gaur egun erabiltzen ez den betetze-gune bat da Txakurzulo. Hori dela eta, panpa-lezka (*Cortaderia Selloana*) landare inbaditzaileak gune osoa hartu du, bertako berezko biodibertsitate osoa desagerraraziz. Kontuak hala, planak horiek guztiak kentzea aurreikusten du. «Modu mekanikoan» egingo da, kolonizazioa erabatekoa den leketan; herbizidak edo eskuzko metodoak erabiliko dituzte, kimu gutxi dauden leketan. Era berean, makina-hondeatzaile bat egaz ubide bat zabalduko dute, gaur egun bertara sartzen den ur-kopurua handitzeko.

Txipio padura kontserbatzeko lanak

Txipio padurak kontserbazio-egoera ona du; oster, azkenaldian hainbat landare inbaditzaile agertzen hasi dira inguru horretan, berbarako: panpa-lezka eta pikondoak (*Ficus Carica*). Horrenbestez, inguru horretan dauden landare inbaditzaile guztiak kenduko dituzte, Txakurzulon erabiliko dituzten bitarteko berberak erabilita.

Butroe ibai inguruan hiru obra horiek aurrera eramateko, lau hilabeteko epea izango dute; horretarako, 80.000 euro erabiltzea aurreikusi du Espainiako Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak. ◀



Mundukatuak

Ana Maria Ali De Celis liebanarra

«Liebana osoa ikusi beharra dago, 365 herriak»

Getxoko Itzubaltzeta/Romo auzoan bizi da Ana Maria De Celis Iglesias; Ali izengoitiagaz da ezaguna. De Celis, 1983an heldu zen Euskal Herrira, Berangora. Oraindino eskertuta dago Rosa Bustamante eta Txema Moran Txindurri bikoteagaz Uribe Kostara ekartzeagatik. Garai hartan iskanbila handiak zituen etxean. «Ezin nuen gehiago jasan: herri txiki, infernu handi. Are gehiago, feminista eta gorria izanda, edo esaten zidatenez, ETAKoa», gogora ekarri du Ali-k.

«Tanta hotzarekin» heldu zen Berangora, uriolakaz, eta lupetza kentzen hasi zuen hemengo bizimodua. De Celisek asko bidaiatu du, eta, besteak beste, Erroman, Parisen eta Londresen bizi izan da eta behar egin du. Halere, Euskal Herria aukeratu du geratzeko: «ni lehen organo-emailea nintzen, baina heltzean, lurralde honengaz maitemindu nintzen, eta gera-

tzea erabaki nuen». Hala, bere gorpua EHUKo Medikuntza Fakultateari agindu dio, eta gorpuzkiak Leioako campuseko Bizitzaren Basoan lotuko dira: «Jaungoikoak ere ez nau mugituko herri honetatik», dio. Lantzean

“ Han ezin nuen gehiago jasan. Are gehiago feminista eta gorria izanda ”

behin bueltatzen da Potes bere herrira eta Liebana bailarara, oporretan. Harro dago bere jende «arretatsuz» eta inguruneaz, «baina bertan artega ipintzen naiz». Ostera, denei gomendatzen die handik pasatzea: «Liebana osoa ikusi beharra dago! Gura duten lekuan jaiotzen badira Bilbokoak, liebanarrok urteko egun bakoitzeko herrix-

ka bat dugu: 365». Antza, den-denek merezi dute. Potes da herri nagusia, eta multzo historikoa osatzen du. Bertan, Torre del Infantado ikusgarria da, egun udaletxea dagoen eraikina. Bertatik gertu, Europako mendiak daude, mendilerroa eta parke nazionala, baita Santiago bidea eta Bide Frantsesa batzen dituen Liebanako bidea. Ali-k ohartarazi du bailarako populazioa hirukoiztu egiten dela udan, turistakaz. Bertako lapikokoa probatu barik ezin dela handik atera esan du: ogi gogorra, berakatza, perrexila, arrautzak, garbantzuak, aza eta txerrikiak ditu. Potesen, «Kantabriako arrain freskoe-na» izaten dute, San Vicente de la Barqueratik ekarria. Tresvisoko gazta eta orein-txorizoa ere bertako berezitasunak dira. Edateko, ordea, Poteseko ardo ahula, Liebenako uxuala (es. orujo), bertako sidrina eta tostadillu ardo goztoa gomendatzen ditu. ◀

NOR DA

Nongoa

Potes (Liebana eskualdea).

Adina

69 urte.

Zertan dabil

Jubilatuta dago; halere, panpinak egin eta auzoko Erromotruk ekimenean parte hartzen du, besteak beste.


Ikasketak

Arte Ederrak egin zituen beharrean zebilen bitartean. Kostatu zitzaion, emakumea izanda ez baitzioten egiten utzi gura.

Noiztik Euskal Herrian

1983tik; uriolen urtean etorri zen Berangora.

NONGOA DA



Lurraldea

Liebana bailara gaur egun Kantabria da, nahiz eta Alfonso I. Asturiasko erregeak jendeztatu zuen, 847. urtean. De Celisek asturiartzat du bere burua.

Azalera

Liebanak 574,83 km² ditu, (Bizkaiaren laurdena, gutxi gorabehera).

Ingurunea

Kantabriak eskualde-administrazioa onartzen dio Liebanari.

Biztanleria

5.860. Haietatik 1.499 pertsona, Potesen.

Hizkuntzak

Liebana bailaran gaztelaniaz egiten dute. Asturiera antzinako kontua da bertan, baina arrastoa utzi du: gaztelania asturieraren doinuaz erabiltzen dute, hainbat berbarek amaieran u bokala ipini, besteak beste.

Dirua

Euroa

Erakunde laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua